

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ALDEZLEAREN URTEKO TXOSTENA

2022ko abenduaren 15a - 2023ko abenduaren 14a

Iñigo Urrutia Libarona

aldezleā

AURKIBIDEA

Sarrera	3
1. 2023ko aztergaiak	7
1.1. Bulegora jo duen pertsona kopurua eta aztergai kopurua.....	7
1.2. Bulegora jo duten pertsonen generoa.....	8
1.3. Bulegora jo duten pertsonen erabilitako hizkuntza.....	9
1.4. Aztergaiak kolektiboen arabera: ikasleak, IRI, TEKAZEL eta "Beste batzuk".....	10
1.5. Aztergai kopurua campusen arabera.....	12
1.6. Aztergai kopurua ikastegien eta zerbitzuen arabera.....	13
1.7. Aztergai motak.....	15
1.7.1. Kolektiboek planteatutako aztergai motak.....	16
1.7.2. Emakumeek eta gizonek planteatutako aztergai motak.....	18
1.8. Kolektibo bakoitzak planteatutako gaiak.....	20
1.9. Bulegoaren esku hartzea.....	27
1.9.1. Baietsitako kexen gaia.....	28
1.9.2. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak.....	31
1.10. Jasotako erantzuna.....	32
1.11. Inplikaturako zerbitzuen eta arduradunen laguntza.....	32
2. Aldezlearen beste eginkizun batzuk	33
2.1. Elkarlana G9 taldeko defendatzaileekin.....	33
2.2. Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen XXV. Jardunaldia.....	33
2.3. CEDUren XVI. Ohiko Batzar Nagusia.....	34
2.4. Elkarlana CEDUren defendatzaileekin, foroetan parte hartuz.....	34
2.5. UPV/EHUren Gobernu Kontseiluetan parte hartzea.....	34
3. Urteko txosten ekonomikoa	35
4. Ondorioak eta gomendioak	36
I. ERANSKINA: 2023ko aztergaien zerrenda	52

Sarrera

Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuen 77. artikulua betetze aldera, Aldezlearen zerbitzuaren urteko jardueren txostena Unibertsitate Klaustroari aurkeztera natorkio. Txosten honek barne biltzen duen aldia 2022ko abenduaren 15etik 2023ko abenduaren 14ra bitartekoa da.

Urteko txostenaren aurkezpena baliatu nahi nuke unibertsitateko kideei azaltzeko Aldezlearen zerbitzuak egin izan duen lana. Baita gai jakin batzuen inguruan gogoeta sustatzeko ere, unibertsitate kideen eskubideen eta askatasunen bermerik egokiena bilatze aldera. Edonola ere, beti diogun moduan, txosten honetan jasotzen den eskubideen eta askatasunen egoerari buruzko argazkiak ez du zehatz-mehatz eta osoki islatzen EHUn egoera erreala. Planteatu zaizkigun kasuak hartuko ditugu ardatz, baina Aldezlearen bulegora heltzen diren kasuek ez ohi dute egoera orokor bat islatzen. Kasu zehatzak eta bakanak izan ohi dira. Hortaz, gehiegizkoa izan daiteke gure ikuspegia estrapolatzea UPV/EHUn funtzionamendu osora, baldin eta ikuspegi hau ez bada zuzentzen beste datu eta erreferentzia batzuekin.

2023. urtea labur deskribatu beharko bagenuke, arautegi aldaketek markatutako urtea izan dela esan genezake. Alde batetik, unibertsitate bizikidetzari buruzko otsailaren 24ko 3/2022 Lege Organikoaren erregelamendua garatu dugu EHUn. Bestetik, Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoak (LOSU) unibertsitate sistema berregituratu du, bai eta unibertsitateak gizarteari eman behar dizkion funtzioak ere. Legedi berriak eskubide eta askatasunei zentralitatea eman dizkiela esan daiteke, eta horren adibide da LOSUren zioen azalpenean irakur daitekeena: *"una universidad comprometida con los derechos de los colectivos más vulnerables y que constituya un espacio de libertad, de debate entre perspectivas culturales, sin jerarquías, impulsando el desarrollo personal, contando para ello con recursos humanos y financieros adecuados y suficientes"*. Alde horretatik, Unibertsitate Sistemaren Lege Organikoaren 2. artikulua Unibertsitatearen helburuak arautzen dituenean, honako hau ezarri du: *"el ejercicio de las anteriores funciones tendrá como referente los derechos humanos y fundamentales, la memoria democrática, el fomento de la equidad e igualdad, el impulso de la sostenibilidad, la lucha contra el cambio climático y los valores que se desprenden de los Objetivos de Desarrollo Sostenible"* (2.3. art.).

Unibertsitateak era autonomoan bete behar ditu bere eginkizunak. Baina autonomia eraginkorra izan dadin, finantza baliabide nahikoez hornitu behar da unibertsitatea. Alde horretatik finantza urritasunak autonomia ezerezean utz ez dezan, Legeak agindu bat zuzendu die eskudun diren Administrazio Publikoei: hots, finantza baliabideak eta egonkortasuna bermatu behar dizkiete unibertsitate publikoei. Hala, 55.2 artikulua honako helburua ezarri du, gutxienezko irizpidetzat: Barne Produktu Gordinaren %1 bideratzea unibertsitate hezkuntzaren gastu publikora. Gai hori LOSUren ardatz nagusia da eta berekin dakar iraultzea unibertsitate publikoak azken urteotan jasan duen desinbertsio handi eta luzea, goi-mailako hezkuntzan gastu publikoa murriztea ekarri duena, hain zuzen

ere. Izan ere, Ministerioaren datuen arabera, 2008-2020 aldian, gastu publiko hori %20,1 murriztu zen, termino errealean.

Legedi berriak Unibertsitateen autonomia indartzearen aldeko apustua egin badu ere, horren kontrapuntu gisa, unibertsitateei betebeharrak eta ardura berriak ezarri zaizkie. Hala, kontuak emateko ardura, gardentasunez jarduteko beharra eta integritatea zaintzea ezarri zaizkie. Unibertsitateek kontuak emateko mekanismoak ezarri behar dituzte beren Estatutuetan, gardentasun atari bat izan behar dute, eta bermatu egin behar dute instituzionalki garrantzitsutzat jotzen duten informazioa eskuratzeko eskubidea. Gainera, zaindu egin behar dute betetzen direla printzipio etikoak, integritate akademikoaren printzipioak eta iruzurraren aurkako jarraibideak izan beharko dituzte.

LOSUren arabera, UPV/EHUren Estatutu berriek arautu egin behar dute ere Aldezlearen erakundea. Lege berriak aukera ematen du defentsa-zerbitzuko "kargu gorena" kide bakarreko organoa edo kide anitzekoa izan dadin.

UPV/EHUK inplementatu beharko ditu gobernantza eta karrera akademikoko eredu berriak, bere Estatutuak aldatuz bi urteko epean, gehien jota.

Aurreratu den bezala, unibertsitate bizikidetzaren arloan, jauzi kualitatibo bat egin dugu 2023an: alde batetik, UPV/EHUren Bizikidetzaren Arautegi Orokorra onartu da, helburutzat duena elkar ulertzearen eta bizikidetzaren baketsuaren sustapena bultzatzea, eta UPV/EHUUn balio demokratikoak, oinarrizko eskubideak eta askatasun publikoak guztiz errespetatzea. UPV/EHUren Bizikidetzaren Batzordea sortu da, unibertsitatea osatzen dugun hiru sektoreetako ordezkariak eratua. Batzorde horren helburuak dira bizikidetzaren arazoak aztertzea eta horiei erantzutea, eta bitartekaritza egitea ikasleen diziplina prozeduretan; halaber, alde aurreko txostena egitea dagokio, arau-hauste larrien kasuetan ikasleei ezarritako zigorrak ordeztzeko aukerei buruz. Bizikidetzaren Batzordea eta Aldezlearen arteko elkarlana eraginkor bihurtzeko zubiak asmatzea erronka bezala planteatu behar dugulakoan nago, bakoitzari zor zaion autonomiari eutsita.

Diziplina prozedurei dagokienez, UPV/EHUK araubide berria onartu du. Hain zuzen ere, diktaduraren garaitik indarrean izen den ikasleen diziplina Erregelamendua indargabetua geratu da, eta ikasleei aplikatu beharreko Diziplinazko Zehapen Prozeduraren Arautegia eta Arau-hausteen eta Zehapenen Katalogoa onartu ditugu, bat etorritik Unibertsitate Elkarbizitzari buruzko otsailaren 24ko 3/2022 Legearekin. Gure arautegi berriak bide ematen die zehapenen ordezkari neurrien aukerei, aurreikusitako kasu eta baldintzetan aplikagarria izango dena. Arau horren bidez, aplikatzeari utziko diogu UPV/EHUUn 1954ko Diziplina Akademikoko Arautegia, frankismo betean dekretu bidez onartua, arrazoizko konstituzionaltasun zalantzak baitzeuden arautegi hori bateragarria ote zen oinarrizko eskubideekin eta, bereziki, legezketasunaren eta tipikotasunaren printzipioekin. Gai honetara itzuliko gara berriro txosten honen azken kapituluan, alor "akademikoaren" eta "diziplina" alorraren arteko desberdintasunei buruz gogoeta egitera bultzatzen duen kasu baten harira.

Gustatuko litzaiguke txosten honen bidez unibertsitateko kide guztiek gogoeta egitea gure erakundearen funtzionamenduaren gai zehatz batzuei buruz, espiritu kritikoarekin, baina zentzu positiboan, gure lana hobetzeari begira betiere. Alde horretatik, gustatuko litzaiguke ere txosten hau behatoki moduko bat izatea, partziala bada ere, detektatzeko unibertsitateko kideak kezkatzen dituzten gaiak eta arazoak.

Asko izan dira 2023an gure bulegora etorri diren pertsonak, kezkatzen zituzten gaiak azaltzera edo lankideen edota ikaskideen arteko harremanak hobetzeko bitartekaritza eskatzera. Nahiz eta ahalegindu garen, badakit beti ez garela gai izan erantzuteko bulegora etorri diren pertsonen espektatibei eta interesei. Eskerrak eman nahi dizkiet pertsona horiei, gudan jarri duten konfiantzagatik, eta barkamena eskatu, huts egin badiegu haien itxaropenei. Aldezlearen funtzio instituzionala da unibertsitatearen interes orokorrari begiratzea eta planteatzen zaizkion egoerak ulertzen saiatzea, ñabardura guztiekin, kasuan-kasuan bidezkoa den posizioa aldezteko. Gauza batek gogobetetzen nau: hots, gure unibertsitateko pertsona askori beren eskubideen eta interesen defentsan lagundu izanak.

Amaitzeko, eskertu nahi ditut ere agintari akademiko guztiek UPV/EHUren Aldezlearekin izan duten prestutasuna, harrera eta kontsiderazioa. Eskerrak eman nahi dizkiet errektore taldeari eta, bereziki, errektoreari berari, eskatu dudan guztietan harrera egin didatelako, kasu gehienetan gai desatseginak landu behar izan baditugu ere. Era berean, eman diguten laguntza eskertu nahi diet ere ikastegietako zuzendari eta dekanok guztiei, sailtako zuzendariari, gerentziako taldeari, arlo nahiz ataletako arduradun guztiei eta Ikasleen Kontseiluari. Denek begirunez jokatu dute Aldezlearen bulegoaren independentziarekin, guztiz beharrezkoa guk gure lana egin dezagun. Eskerrik asko Aldezlearen erakundearen lana errespetatzeagatik.

Gure unibertsitate publikoaren garapena uztartu behar da ahalik eta zerbitzu hoberena eskaintzarekin eta eskubideak ongi definitu eta bermatzearekin. UPV/EHU osatzen dugun pertsona guztien eskubideak ardatz izatea etengabeko hobekuntzaren gakoetatik bat da, gizarteari ematen diogun unibertsitate zerbitzua hobetze aldera, nahitaezko zutabe dena.

Txosten hau jasotzen duen 2023ko jardueraren ondorioak azaltzen hasi aurretik, gogora ekarri nahi dut, txostena hobeto ulertzeko, hiru motatakoak direla Aldezleak izapidatzen dituen prozedurak:

- Kongsultak: kongsultak egiten dizkiguten pertsonak jakin nahi izaten dute zehazki zer eskubide dituzten edo nola babes ditzaketen, eta zein den unibertsitateko organo eta zerbitzuen jardun eremua. Gure zeregina da aholkatzea.
- Kexak eta erreklamazioak: UPV/EHUko kideek edo UPV/EHUkoak izan gabe interes legitimoa duten pertsonak planteatzen dituzte, uste dutelako urratu egin direla haien eskubide edo interes legitimoak, administrazioaren jardueragatik edo jarduera ezagatik, edo UPV/EHUko organo, zerbitzu, agintari edo irakasleek hartutako erabakiengatik. Kasu horietan, zerbitzu honek egin dezake orientazio edo jarraipen lan bat, non interesdunari adierazten zaion zer urrats egin behar

dituen bere kasua konpontzeko, baldin eta aldezleak esku hartzea debekatuta badu, adibidez, prozedurazko ohiko bideak agortu ez direlako; edo, bestela, gomendio bat helaraz diezaioke unibertsitate erakunde eskudunari, dagokion azterketa kontrastatua egin ondoren. Gomendio horren xedea izan daiteke gogoraraztea arau jakin bat bete behar dela, edo iradokizun bat ere izan daiteke kasuari aplikatu dakiokeen arauaren bat interpretatzeko moduari buruz; halaber, arau bat aldatzea proposa daiteke, edo arau edo akordio berri bat onartzea, ematen dugun zerbitzu publikoa hobetzeari begira; batzuetan eskubide edota interesen talkak sumatzen ditugunean, gerta daiteke proportzionaltasun azterketa egitea kasuaren ñabardurei egokitutako irtenbideren bat proposatuz.

- Bitartekaritza/kontziliazio prozesuak: unibertsitateko bi kideren edo gehiagoren arteko gatazketan planteatzen dira. Konponbidea bilatzeko, elkarriketan oinarritutako akordioa bilatzen da inplikaturako pertsonen artean, eta aldezleak bitartekari lanak egiten ditu bi aldeen artean, akordio egoki bat bilatzeko.

Aipatu berri diren hiru zeregin motez gainera, "gertakizunen kontaktak" ere jasotzen dira bulegoan, eta, horien bidez, interesdunek egoera edo gertakizun baten berri ematen diote aldezleari, inolako jarduerarik hasteko eskatu gabe.

Rexak eta erreklamazioak aztertzean ikusten badugu unibertsitateak ez duela zuzen jokatu, gomendio edo iradokizun bat egiten diogu dagokion unibertsitate zerbitzuari, bere jokabidea aldatzeko eskatuz. Kasu batzuetan, ikusten dugu zerbitzuak legearen arabera jokatu duela, nahiz eta gure iritzian egokia litzatekeen beste modu batean aritzea, eskubideak hobeto zaintzeari begira. Kasu horretan, araua beste era batera interpretatzea gomendatzen dugu.

Txosten honen edukiak aurrekoen oinarritzko egitura bera du, gaien eta haien ezaugarrien bilakaera modu ebolutibo batean aztertu ahal izateko. Hasteko, 2023. urtean bulegora iritsi diren kasuak deskribatuko ditugu, aurreko urteetakoekin alderatuta, horren gaineko zenbait ohartarazpen egiteko. Jarraian, bulego honek 2023an eginiko beste lan batzuk aipatuko dira, hala ohikoak nola beste jarduera batzuei loturikoak, eta urteko txosten ekonomikoa aurkeztuko da. Azkenik, txostena amaitzeko, hainbat gogoeta orokor egingo dira. Halaber, eranskinean, 2023an aztertutako gai guztien taula ikus daiteke.

Amaitzeko, nire eskerrik zintzoena adierazi nahi diet Aldezlearen zerbitzuko lankide Ana Saralegiri eta Maite Estévezi, haien pazientziagatik, eraginkortasunagatik eta erakundearekin duten konpromisoagatik. Haien gabe, ezinezkoa litzateke lerro hauetan aipatuko diren lan asko eta asko egitea.

1. 2023eko aztergaiak

Atal honetan aipatuko ditugu bulegoak 2023. urtean landutako aztergaiak eta haien oinarritzko ezaugarriak. Urtean zehar landutako gai guztien zerrenda ikusteko, ikus [I. ERANSKINA](#).


1.1. Bulegora jo duen pertsona kopurua eta aztergai kopurua

2023an, 147 pertsonak jo dute Aldezlearen bulegora eta 149 aztergai planteatu dituzte guztira (kontsultak, kekek eta bitartekaritza eskaerak). Orotara, UPV/EHUren Aldezlearen zerbitzua martxan jarri zenetik, 1.474 pertsona igaro dira bulegotik eta 1.692 kasu eta 105 kontakizun planteatu dituzte.

1. grafikoak erakusten du bulegoan hartutako pertsonen eta aztergaien kopuruen bilakaera, UPV/EHUko Aldezlearen erakundearen azken 10 urteko ibilbidean. 2023an, parekatu egin dira bulegora etorri diren pertsonen eta aztertutako kasuen kopuruak, ez delako erregistratu keka kolektiborik, eta pertsonaren batek eskaera bat baino gehiago egin baditu ere, berdindu egin da lagun batek baino gehiagok planteatutako kasu kopuru txikiarekin.





Hurrengo ataletan erreferentzia oinarritzat hartuko ditugu aipatutako 149 aztergaiak. Gainera, aurten, 4 lagunek 4 aztergai gehigarri planteatu dituzte bulegoan. Pertsona horiek ez zuten nahi une horretan gure erakundeak zuzenean esku hartzea; aldiz, gertakizun batzuen berri eman nahi zuten, garrantzitsuak unibertsitatearentzat, haien ustez aldezleak jakin beharrekoak. 2. grafikoan ikus daitezke azken urteetan jasotako "gertakizunen kontakizunak".



1.2. Bulegora jo duten pertsonen generoa

Aldezlearengana jo duten 147 pertsonen artetik, 89 emakumeak ziren eta 58 gizonak. Emakumeek planteatu dituzte 88 aztergai eta gizonak 61. 3. grafikoa biltzen ditu aldezlearen azken hamar urteei dagozkien.







4. grafikoa ikus daitekeenez, urtetik urtera emakume ehuneko handiago batek jotzen du bulegora, kontuan izanda emakumeek eta gizonak UPV/EHU-n duten presentzia.

1.3. Bulegora jo duten pertsonen erabilitako hizkuntza

Aipatutako 149 aztergaietatik, 45 euskaraz planteatu dira; 104, gaztelaniaz.






2023an tramitatutako kasuen % 30,2 euskaraz planteatu eta ebatzi dira; hots, aurreko bi urteetako datua eta aztertutako aldiari dagokion batez bestekoa gainditzen dituen ehunekoa. 2014tik aldezlearengana jo duten pertsonen % 27,5 euskaraz aritu dira.


1.4. Aztergaiak kolektiboen arabera: ikasleak, IRI, TEKAZEL eta "Beste batzuk"

2023an, ikasleek 53 aztergai planteatu dituzte, irakasle-ikertzaileek 51, TEKAZELeko langileek 18 eta unibertsitatekoak ez diren pertsonen 27 ("Beste batzuk" kategorian). Beraz, gora egin du "Beste batzuk" kategoriatik jasotako kasu kopuruak eta behera, beste kategorien kasuena.


7. grafikoa erakusten du kolektibo bakoitzak azken hamar urteetan planteatutako aztergaien bilakaera. 2023an goia jo du unibertsitatetik kanpoko pertsonen aurkeztutako aztergaien kopuruak.



8. grafikoa ikus daitezke unibertsitateko kideen (irakasle-ikertzaileak, TEKAZEL eta ikasleak) datuak, ehunekotan. 2023ko datuak aurreko urtekoen antzekoak dira. Azken urteetan, oso antzekoak izan dira irakasleen eta ikasleen aztergaien ehunekoak, aurreko urteetan ez bezala, nagusi zirelako argi eta garbi ikasleek planteatutako kasuak.





2023an ikasleek planteatu dituzten 53 aztergaien artetik, 40 graduiko ikasleenak dira eta 13, graduondokoenak (9. grafikoa).



1.5. Aztergaiak campusen arabera

Bulegoak unibertsitateko kideengandik jaso dituen 122 aztergaietatik, 37 Gipuzkoako Campusetik iritsi dira; 62, Bizkaiko Campusetik; eta 23, Arabako Campusetik (dagoeneko esan dugunez, UPV/EHUkoak ez diren pertsonen beste 27 aztergai iritsi zaizkigu). 11. grafikoa ehunekotan ematen ditu datuak.





1.6. Aztergaiak ikastegien eta zerbitzuen arabera

1. taulan ikus daiteke aldezlearengana laguntza eske jo duten pertsonen ikastegien eta zerbitzuen zerrenda. Taulak kontuan hartzen ditu aztergai mota guztiak: kexak (baietsiak izan ala ez), kontsultak eta bitartekaritza eskaerak.

Romeni da erlatibizatzea taulan ageri diren datuak, soil-soilik balio dutelako jakiteko nondik datozen aztergaiak, ez beste ondoriorik ateratzeko hortik kanpo. Aztergai gehienak ikastegi handienetatik datoz, eta kontuan izan behar da ere pertsona askotarikoei eragin diezaieketen gaiak izan daitezkeela. Beraz, ikastegi edo zerbitzu baten estatistikak edo datuak asko alda daitezke urte batetik bestera, faktore ugari eraginda.

1. taula. Aztergaiak planteatu dituzten pertsonen ikastegiak eta zerbitzuak


Ikastegiak eta zerbitzuak	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Arabako Biblioteka	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Argitalpen zerbitzua	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Arkitektura GET	4	2	-	-	6	3	1	2	1	2
Arte Ederren Fakultatea	1	4	2	1	2	5	4	4	9	6
Zientzia eta Teknologia F.	11	7	4	7	7	8	8	11	7	4
Berdintasunerako Zuzendaritza	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Joxe Mari Korta eraikina	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Doktorego E. *	1	5	6	4	2	10	1	3	4	2
Bilboko Ingeniaritza E.	13	12	6	11	14	6	10	11	19	15
Bilboko Hezkuntza F.	4	4	7	7	4	6	2	5	1	6
Bilboko Merkataritza Ganberako UE	-	2	-	1	-	-	-	-	-	-
Bizkaiko Biblioteka	-	-	-	-	-	2	-	-	-	-
Campuseko Gerenteordetza	-	-	-	-	2	3	3	-	1	1
Desgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua	-	-	1	1	-	-	-	-	-	-
Ekonomia eta Enpresa F.	5	3	5	13	11	10	11	7	5	17
Enplegu Gunea	-	-	-	1	1	-	-	-	-	-
Eraldaketa Digitalaren eta Komunikazioaren arloko Errekt. Errektoregoa	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errekt.	-	-	-	-	-	1	1	-	1	-
Farmazia F.	4	1	2	2	1	2	6	-	5	3
Gasteizko Erizaintzako UE	1	-	2	2	1	-	-	-	-	-
Gasteizko Ingeniaritza E.	6	6	2	2	1	1	1	2	5	1
Gerentzia	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Gipuzkoako Biblioteka	-	4	2	1	2	-	1	1	-	-
Gipuzkoako Esperientzia Gelak	1	-	7	-	1	-	-	-	1	-
Gipuzkoako Ingeniaritza E.	2	1	2	10	4	9	10	12	2	3
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	17	9	2	6	5	1	6	5	4	3
Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko Errekt.	-	-	-	2	-	-	-	2	-	-
Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren Errekt.	-	-	-	-	-	-	-	1	1	-
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F.	10	11	9	21	7	13	15	8	6	8
Hezkuntza eta Kirol F.	4	6	3	4	7	1	2	5	4	7
Idazkaritza Nagusia	2	1	-	-	-	-	1	-	2	1
Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errektoreordetza	-	-	-	-	-	2	1	5	-	-
Ikasleen Kontseilua	1	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Ikerketaren arloko Errektoreordetza	-	-	1	-	-	-	-	-	1	-
IKTen Gerenteordetza	-	2	2	2	1	1	-	2	5	-
Ikuskaritza Zerbitzua	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
IMH Ingeniaritza Duala UE	-	4	6	7	-	1	1	-	-	-
Informatika F.	4	2	-	-	3	4	3	2	3	-
Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza	-	-	-	-	1	-	-	-	-	2
Kimika F.	1	-	-	-	1	4	-	-	1	1
Kirol Zerbitzua	-	-	1	1	-	1	-	-	-	-
Lan Harreman eta Gizarte Langintza F.	1	-	1	-	-	1	-	-	2	3
Letren F.	16	7	3	3	7	7	10	7	13	5
Materialen Fisika Zentroa	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Medikuntza eta Erizaintza F.	17	12	19	15	17	11	11	9	16	13
Psikologia F.	1	6	9	10	5	1	4	6	10	5
Pertsonaleko Gerenteordetza	1	2	-	-	-	1	1	-	-	2
Prebentzio Zerbitzua	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Zuzenbide F	9	9	5	9	6	10	8	7	8	11
Beste batzuk **	26	14	8	20	18	13	20	26	22	27
Guztira	164	139	119	164	138	138	142	148	159	149

*2019ra arte, Master eta Doktorego Eskolatik iritsitako kasuak barne hartzen ditu.

**UPV/EHUtik kanpoko pertsonen planteatutako gaiak barne hartzen ditu.

1.7. Aztergai motak

Aztergaien sailkapenari dagokionez, 2023an jaso dira 106 kontsulta, 39 kexa eta 4 bitartekaritza eskaera. 12. grafikoa konparatzen ditu datu horiek aurreko urteetakoekin.




2023ko aztergaien banaketa azken urteetako banaketaren oso antzekoa da. Bilakaeraren grafikoan, 2019ra arte ikusten da behera egiten duela pixkanaka kexen kopuruak, eta gora, aldiz, kontsulta gisa planteatutako gai kopuruak. Urte horretatik aurrera, mantendu egin da bulegoan aurkeztutako aztergaien banaketa: iristen diren aztergaien %25 gutxi gorabehera kexak dira; gainerakoak, kontsultak edo bitartekaritza eskaerak.


Kontsulta oso baliabide egokia da kasu gehienek tratamendua bideratzeko. Prozedura azkar bat da, eta bizkor aztertu, ikertu eta kontrastatzen da gaia, konponbide egoki bat emateko planteatzen zaigun aztergaiari. Aldiz, kexaren prozedura burokratizatuago dago, eta fase dokumental landuagoak behar dituzten egoerarako uzten da.

1.7.1. Kolektiboek planteatutako aztergai motak

13., 14. eta 15. grafikoetan ikus daiteke aztergai mota bakoitzaren (kontsulta, kexa eta bitartekaritza eskaera) bilakaera, kolektiboka.




Kontsulten kopuruak gora egin du “Beste batzuk” kategorian eta behera, beste kolektiboetan (13. grafikoa). Kexei dagokienez –ikus 14. grafikoa–, 2023an behera egin dute TEKAZEL kolektiboaren kexek, eta gora, aldiz, irakasle-ikertzaile eta ikasleenek. Kexek hamaika urteetan izandako bilakaera aztertzen badugu, gorabeherak ikusten dira, nahiz eta beheranzkoa den joera nagusia.




Bitartekaritzari dagokionez, aurten lau aldiz eskatu zaio aldeleari esku hartzeko unibertsitateko kideen artean sortutako gatazketan.

Bitartekaritza eskaerak datoz unibertsitateko hiru kolektiboetatik: eskaera bat kolektibo bakoitzetik (irakasle-ikertzaileak, ikasleak eta TEKAZEL). Laugarren bitartekaritza eskaera batera aurkeztu dute irakasle-ikertzaileek eta ikasleek.




1.7.2. Emakumeek eta gizonek planteatutako aztergai motak


Atal honetan erreparatuko diogu aztergaiak generoaren arabera izan duten bilakaerari. Aipatu dugunez, 2023. urtean 58 gizonek jo dute alde zleazengana eta 61 aztergai planteatu dituzte; aldiz, 89 emakumeek 88 kasu planteatu dituzte. Aztergai batzuk batera aurkeztu dituzte pertsona batek baino gehiagok, eta horregatik izan daiteke aurkeztutako kasuen kopurua aztergaiak planteatu dituzten pertsonen kopurua baino txikiagoa. 16. grafikoak erakusten du urtero eginiko kontsulta kopurua. Goranzko joera orokor bat ikus daiteke, nahiz eta azken urtean behera egin duen emakumeen eta gizonen kontsulta kopuruak aurreko urteari dagokionez. Jasotako kexen kopurua aztertzen badugu (17. grafikoa), 2023an bai gizonen kexak bai emakumeenak aurreko bi urteetako datuen parekoak dira. Gizonek planteatutako aztergaien %29 kexak dira, eta datu hori %24ra jaisten da emakumeen kasuan. Hori horrela, jasotako kexen guztizkoari begiratzen badiogu, kexen % 40 gizonenak dira eta %60, emakumeenak. Beraz, ez dago alde ikaragarriarik sexu bakoitzak formulatutako kexen ehunekoetan; bai, aldiz, kontsulten ehunekoetan, askoz handiagoa emakumeen kasuan. Bitartekaritza eskaerei dagokienez (18. grafikoa), 2023an 4 eskaera jaso dira: 3 emakumeena eta bestea gizon batena.



17. grafikoa. Emakumeen eta gizonen keak



18. grafikoa. Emakumeen eta gizonen bitartekaritza eskaerak



1.8. Kolektibo bakoitzak planteatutako gaiak

Kolektiboek zehazki zer motatako arazoak (edozein eratakoak, ez soilik kexak) planteatzen dituzten jakiteko, lau taula aztertuko ditugu jarraian, hurrenez hurren ikasleei, irakasle-ikertzaileei, TEKAZELEko langileei eta "Beste batzuk" kategoriari dagozkienak (2., 3., 4. eta 5. taula).

Tauletan, zerrenda urdinez nabarmendu dira gutxienez bost urtez errepikatu diren gaiak. Bestetik, taula guztietan, parentesien artean adierazi da zenbat kasutan esku hartu duen aldezeak –gaiaren edukia gorabehera– zegokion organoak ez erantzuteagatik. Horrelako kasuetan, sakoneko gaia prozedura kontuekin gurutzatzen da, hala nola idatzi edo errekurso bati epean ez erantzutea, eta horrelakoetan gaia kategoria nagusiaren barruan sartzen da.

2. taulan ikus daitezke ikasleek planteatutako aztergaiei dagozkien gaiak. 2023. urtean, honako hauek izan dira gehien aipatutako gaiak:

1. **"Ikaskuntzaren ebaluazioa"**: 2023an, gai honi loturiko ikasleen 20 aztergai jaso dira. 4 kexa eta 16 kontsulta. 3 kexatan aipatu dira irregulartasunak irakasgai baten ebaluazioan, proposatutako azterketaren egokitzapen falta, galdera anbiguoak edo zuzentasunik eza letra irakurtezina izateagatik. Kexa horiek ez dira onartu eta ikasleak bideratu dira graduako titulazio ofizialetan ikasleen ebaluazioa arautzen duen arautegiaren 22. artikuluan ezarritako prozedurara (artikulu horrek ezartzen du zer organoren aurrean eta zer epetan egin behar den erreklamazioa). Laugarren kexak salatzen zuen ikasleari ezarritako ebaluazio sistemak ez zuela betetzen unibertsitate arautegia, eta atzera bota zen eskaera, hura xehetasunez aztertu ondoren.

Bestetik, kontsultak askotarikoak izan dira, ikasleek zalantzak planteatzen dituztelako beren eskubideei buruz, araudian aurreikusitakotik kanpo zerbait gertatu eta horrek eragiten dienean. Hala, galdetu dute ea ukatu ahal zaien klasera sartzea eta etengabeko ebaluazioz ebaluatuak izatea, arrazoi justifikatuengatik berandu iristean, nota jaitsi ahal zaien azterketa berrikustean, azterketa eguna aldatzeko eskubidea duten, arrazoi justifikatuengatik, zeintzuk diren ebaluazio lan batean plagioa detektatzearen ondorio akademikoak eta diziplinarioak, edo nola lortu zuzendutako azterketaren kopia, kalifikazioaren erreklamazioa aurkezteko.

2. **"Matrikula"**: Epigrafe honetan bildutako eskaerak dagozkie graduako edo graduondoko irakasgaiak matrikulatzearen administrazio kudeaketari buruzko kexei edo kontsultei: MALaren matrikula datei eta defentsari buruzko informazio okerra, matrikula aurrez ezarritako datan eta orduan egiteko zailtasunak, akatsa GRAL bat matrikulatzean, matrikula beste irakaskuntza unitate lekuz aldatzea...

3. **"Arazoak irakaskuntzarekin"**: 2023an, ikasleen (edo haien ordezkarien) 4 kexa jaso dira irakaslerik ez izateagatik euskaraz edo ingelesez eman beharreko irakasgaietan. Akademia Antolakuntzako Dekanordetzari galdetuta, erantzun zitzaigun ezin izan zirela plaza horiek bete ordezkoen poltsen bidez, hizkuntza profil egokia (elebiduna edo hirueleduna) zuen hautagairik ez egoteagatik, eta beste irtenbide batzuk bilatu zirela; hala nola euskarazko eta gaztelaniazko taldea bateratzea edo irakasgaia lauhilekoz aldatzea, ikasleentzat guztiz gogobetegarriak izan ez ziren irtenbideak. Nolanahi ere, esan zuten antolakuntza neurriak hartuko zituztela hurrengo ikasturteari begira.
4. **"Arazoak kideekin"**: Ikasleek aldezlearengana ere jo ohi dute gatazkak sortzen direnean unibertsitate bizitzan eta bizikidetzan, arazoa konpon dezan edo leuntzen lagun dezan. 2023an, lau izan dira ikasleek bizikidetzan alorrean planteatutako kasuak, bizikidetzan arazoak taldeko ikaskideekin, titulazioaren irakasleekin edo beste unibertsitateko kide batzuekin. Aldezleak kasu horiek aprobetxatzen ditu gogoratzeko gatazka horietan inplikaturako pertsonen bete egin behar dituztela unibertsitate bizikidetzako arauak, ezinbesteko tresna gisa bultzada emateko elkarren arteko ulermenari, bizikidetzan baketsuari eta unibertsitatean oinarritzko eskubideen eta askatasun publikoen erabateko errespetuari.

2. taula. Ikasleen aztergaiak

Gaia	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Arautegia ez betetzea	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Arazoak agintariekin	2	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Arazoak kideekin	-	-	6	-	-	1	-	-	1	4
Aretoak eta instalazioak erabiltzea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea	1	1	2	4	2	2	-	-	2	-
Datuak babestea	-	1	-	-	-	1	-	-	-	-
Diziplina araubidea	1	-	1	-	-	-	1	-	1	-
Doktorego aurreko kontratua	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Doktorego tesia	1	5	2	-	1	2	1	3	1	2
Espedientea lekuz aldatzea	-	-	-	2	1	-	-	2	1	1
Etenaldi akademikoa	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Etika akademikoa	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Euskarazko arreta	-	-	1	1	-	-	-	-	1	-
Familia kontziliazioa	-	-	1	-	-	-	1	1	-	1
Genero indarkeria	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Gradu/Master amaierako lana	4	2	1	3	3	2	3	3	5	2
Gradura egokitzea	3	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Greba	2	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Ikasketetarako sarbidea	-	1	1	2	2	-	4	-	-	-
Ikaskuntzaren ebaluazioa	14	21	17(1)	33	9	13	20	10	10	20
Ikasleen ordezkaritza	3	1	1	-	1	1	1	-	1	-
Ikasleentzako zerbitzuak	-	-	-	-	2	-	-	-	-	-
Ikastegiko zuzendariaren portaera	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	-	-	-	-	1	2	-	2	-
Intimitaterako eskubidea	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Irakaskuntza euskaraz	2	-	-	-	1	-	-	-	1	-
Irakaskuntza ingelesez	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Irakaskuntza telepresentziala	-	-	-	-	-	-	-	5	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	10	15	7	9	4	5	5	4	4	4
Irakasleen portaera	4	2	1	2	5	4	2	3	4	2(1)
Jendaurreko arreta	-	2	-	-	-	2	1(1)	-	-	1
Kanpoko praktikak	3	2	2	2	3	1	1	3	-	3
Kide anitzeko organoak	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Kideen portaera	1	-	1	2	1	-	-	-	-	-
Kredituak aitortzea	-	-	-	-	-	-	5	1	-	1
Laguntzak/bekak	3	4(1)	1	4	4	6	2	-	4	1
Lan baldintzak	-	-	-	3	-	-	-	-	-	-
Matrikula	5	3	4	7	6	7	4	1	4	5
Matrikula baliogabetzea	-	1	-	-	1	1	3	1	-	-
Mugikortasuna	2	1	-	-	4	4	1	3	6	1
Ondarezko erantzukizuna	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Plazak/ordezkapen poltsak	-	-	-	-	-	-	-	-	2	-
Premia bereziak dituzten pertsonentzako arreta	-	-	1	1	-	-	-	3	1	1
Presoentzako arreta	-	1	1(1)	-	-	-	1	-	-	-
Prezio publikoak	1	2	2	2	2	1	1	1	2	-
Tituluak eta ziurtagiriak	1(1)	2	-	1	1	-	2	2	4	1
Tratu baztertzaila	1	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Tratu berdintasuna	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
UPV/EHUn Jarraitzeko Arauak	-	-	-	-	2	3	2	-	1	-
Beste batzuk	1	-	1	1	-	2	1	3	1	1
Guztira	68(1)	67(1)	54(2)	81(0)	57(0)	59(0)	67(1)	51(0)	61(0)	53(1)

Irakasle-ikertzaileen kasuan (3. taula), gai errepikatuenak dira sailetan plazak eskuratzea edo sustatzea, eta saileko kideen arteko bizikidetza arazoak. Irakasle-ikertzaileen beste gai batzuk dira irakaskuntza eta irakats karga esleitzea, ikasleen ebaluazioan izandako gorabeherak, ekipoen edo aplikazio informatikoen funtzionamendu arazoak eta irakaskuntza arazoak.

Plazak/ordezkapen poltsak atalari dagokionez, ohi bezala aipatzen dira tirabirak irakasle-ikertzaile plazak baimentzeko eta Ebaluazio Batzordeak eratzeko irizpideetan, batzorde horren erabakiekiko desadostasuna edo deialdiak arautzen dituzten oinarrien interpretazio zalantzak.

Arazoak kideekin kategorian sartzen dira sail baten barruko bizikidetza arazoak, saileko kideen artean edo kide baten eta saileko zuzendaritzaren artean. Kontsulta modura iritsi ohi badira ere bulegora, aurten kasu batean kexa modura planteatu da, eta beste bi kasutan aldezearen bitartekaritza eskatu da, irtenbide egokia aurkitzeko arazoari. Horrelako egoeretan saiatzen gara proposatzen irakaskuntzan eta ikerketan lanerako giro egokia sortuko duten neurriak. Zoritxarrez, bitartekaritza kasuetako bat aldeen arteko adostasunik gabe amaitu zen, planteamenduak hurbiltzeko prozesu luze baten ondoren.

Irakasle-ikertzaileen artean, ikasleen ebaluazioaren gaia ere agertzen da, irakasleek zalantzak izan ohi dituztelako arautegia betetzearen inguruan, ikasleen ebaluazioa planifikatu eta gauatzeko orduan.

Beste desadostasun iturri bat izan ohi da sailek ardurapean duten irakaskuntza kudeatzeko duten modua. Iritsi zaizkigun kasuetako desadostasunak eta gorabeherak sortu dira irakaskuntza eskaintzatik irakasgaiak kentzeagatik, irakasgaiaren koordinatzailea izendatzean izandako arazoengatik, irakasgaia emateko metodologiari buruzko desakordioengatik edo ikasleen kexen tramitazioagatik.

3. taula. Irakasle-ikertzaileen aztergaiak

Gaia	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Arautegia aplikatzeko modua	2	-	-	2	2	3	-	1	-	-
Arazoak agintariek	1	-	-	-	-	1	-	-	1	1
Arazoak kideekin	13	5	3	3	6	2	5	10(1)	4	4
Baimenak	-	-	-	-	1	-	1	-	-	-
Barne kontrola	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Bateraezintasunak	-	-	-	1	2	1	-	-	-	1
Burokrazia	-	-	2	-	-	-	-	-	-	-
Datuak babestea	-	1	-	-	1	2	3	2	1	2
Diziplina araubidea	-	-	-	2	2	-	3	1	-	-
Doktorego aurreko kontratua	-	-	-	-	-	-	-	1	1	-
Doktorego tesia	3 (1)	1	-	2	1	3	-	2	2	-
Ebaluazio epaimahaiak hautatzea	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Elkargoko kide egitea	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Erosketak	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Errektoregoaren portaera	1	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Erretiroa	-	-	-	-	-	-	-	1	4	1
Etika akademikoa	2(1)	1	-	-	2	3	-	-	2	2
Euskarazko arreta	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Familia kontziliazioa	-	1	-	1	1	-	1	-	-	-
GAUren arazoak	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Gradu/Master amaierako lana	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Greba	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Hauteskunde araubidea	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	-	2	-	-	-	-	-	-	-
Ikasketetarako sarbidea	-	-	-	-	-	1	-	1	-	2
Ikaskuntzaren ebaluazioa	2 (1)	-	3	3	3	1	1	1	1	3
Ikasleen kexen protokoloa	-	-	-	-	-	-	-	-	2	1
Ikasleen portaera	2	2	2	2	2	2	-	1	1	2
Ikastegiko zuzendariaren portaera	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ikerketa proiektuak	-	-	-	-	-	1	-	2	1	2
Ikertaldeak	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Informatika aplikazioak/IKT zerbitzuak	-	-	-	-	1	5	1	-	-	3
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	-	-	-	-	-	-	1	5	1
Intimitatea, ohorea eta norberaren irudia besteko eskubidea	-	-	-	-	-	-	3	-	-	-
Irakaskuntza betebeharrak	-	-	-	-	-	-	2	-	-	-
Irakaskuntza euskaraz	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	2	-	-	1	1	1	1	1	1	3
Irakaslana banatzea	6	4 (1)	8 (2)	5	7 (1)	5	4	3	3	3
Irakaslanaren ebaluazioa	-	1	3(1)	2	-	2	3	-	-	1
Irakasleen Hobekuntzarako Plana	2	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-
Irakasleen portaera	-	-	-	-	2	2	1	1	1	2
JAP/Kredituen aitortza	-	-	2	-	-	-	1	-	1	1
Jazarpena/jazarpen portaerak	2	2	1	-	-	-	-	-	-	-
Jendaurreko arreta	-	-	-	1	1	-	-	-	-	-
Katedra askatasuna	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Kide anitzeko organoak	-	-	-	-	-	1	-	-	2	1
Laguntzak/bekak	-	1 (1)	1	2	-	-	-	-	1 (1)	2(1)
Lan baldintzak	3	2	6	10 (1)	1	3 (1)	2	3	3	2
Lanen ebaluazio etikoa	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Matrikula balio gabetzea	-	-	-	1	1	-	-	-	-	-
Merezimenduen ebaluazioa	-	-	-	-	-	-	-	3	1	1
Ordezkaritza organoaren portaera	-	1	-	-	-	-	-	1	-	-
Osagarri gehigarriak	1	3	-	3	-	-	-	3(1)	-	-
PIF ordainsariak	2	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Plazak/ordezkapen poltsak	4 (3)	7 (1)	2	8	6	5	6	6(1)	10(1)	6(2)
Prebentzio eta segurtasun neurriak	-	-	-	-	-	-	-	2	-	-
Premia bereziak dituzten pertsonentzako arreta	-	-	-	-	-	-	-	2	-	-
Presoentzako arreta	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Saileko zuzendariaren portaera	2	2	1	-	-	-	-	-	-	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Tratu berdintasuna	1	-	-	-	2	1	2	-	-	-
Beste batzuk	3	4	1	1	2	2	1	6	5(1)	4
Guztira	56(6)	42(3)	41(3)	51(2)	48(1)	48(1)	43(0)	56(3)	55(3)	51(3)

TEKAZELeko langileei dagokienez (4. taula), gehien errepikatzen diren gaiak dira **lanpostuko lan baldintzak**, langileentzako gizarte arretak eta erretirora igarotzeko neurriak.

4. taula TEKAZELeko langileen aztergaiak

Gaia	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Arautegia aplikatzeko modua	1	-	-	-	2	1	1	-	-	-
Arautegia ez betetzea	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Arazoak lankideekin	-	-	1	-	-	-	-	-	4	-
Azpiegiturak	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Bateraezintasunak	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Burokrazia	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Datuak babestea	-	-	-	-	1	1	-	-	-	-
Diziplina araubidea	-	-	1	-	-	-	-	1	-	-
Erretiroa	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	2	2
Gatazka hierarkian gorago dagoen pertsonarekin	-	1	-	-	-	-	-	1	-	2
Gizarte arretak	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	2	1	2	1	2	1	1	-	-	-
Ikaskuntzaren ebaluazioa	-	-	-	-	-	-	2	-	-	2
Ikasleen portaera	-	1	-	-	1	-	-	-	-	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	2	2 (2)	-	-	-	-	1 (1)	-	-	-
Intimitatea, ohorea eta norberaren irudia besteko eskubidea	-	-	-	-	1	-	2	-	-	-
Irakaskuntza euskaraz	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Irakasleen portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Jazarpena/jazarpen portaerak	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Kide bakarreko karguak	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Kideen portaera	-	-	-	4	-	-	-	-	-	-
Laguntzak eta beka	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Lan baldintzak	2 (1)	5 (1)	6 (1)	3 (1)	4	4(1)	1	4	7	3(1)
Lanpostuen balorazioa	-	-	-	-	-	-	-	1 (1)	1	-
Lizentziak eta baimenak	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Merezimenduen balorazioa	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2
Merezimenduen ebaluazioa	-	1 (1)	-	1	-	-	-	-	1	1 (1)
Plazak/poltsak/lekualdatze lehiaketak	3 (1)	2	-	3(1)	2	6	3	3(2)	4	1
Prebentzio eta segurtasun neurriak	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Prezio publikoak	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Saileko zuzendariaren portaera	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Telelana	-	-	-	-	-	-	-	2	-	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	-	1	1	-	-	-	-
Beste batzuk	1	1	1	-	-	3	1	-	1	4
Guztira	14(2)	16(5)	14(1)	12(2)	15(0)	18(1)	12(1)	15(3)	21(0)	18(2)

Azkenik, "Beste batzuk" kolektiboan (5. taula), **Ikasketetarako sarbidea** da kasu gehien biltzen dituen gaia. UPV/EHUK eskainitako ikasketetan onartua izatearekin lotutako arazoak biltzen ditu: hala nola desadostasunak unibertsitatera sartzeko ebaluazioaren kalifikazioarekin, gorabeherak izena emateko prozesuan edo arazoak eskaera handieneko titulazioen itxaron zerrenden kudeaketan.

Tituluak eta Ziurtagiriak atalak biltzen ditu gure unibertsitatean ikastaroak eman edo jaso dituzten pertsonen eskaerak, zailtasunak dituztenak eginiko jardueraren ziurtagiria lortzeko, hasieran lortutako ziurtagiria galdu edo agirian akatsen bat aurkitu ondoren.

Aurten eskaera bat baino gehiago iritsi dira doktoregoko ezohiko sarien deialdiari lotuta, agerian utziz desadostasunak ebaluazio epaimahaiek erabilitako irizpideekin eta deialdiaren oinarrien interpretazioarekin.

5. taula “Beste batzuk” kategoriaren aztergaiak

Gaia	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Aretoak eta instalazioak erabiltzea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	2
Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Datuak babestea	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Diziplina araubidea	-	-	1	1	1	-	-	1	-	-
Doktorego tesia	-	-	-	-	-	1	-	1	-	-
Doktoregoko ezohiko sariak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	3
Erretiroa	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Espedientea lekuz aldatzea	-	-	-	1	-	1	-	2	2	1
Etika akademikoa	-	-	-	1	-	-	1	-	-	-
Gardentasuna eta gobernu ona	-	-	-	1	-	-	1	-	-	-
GAURen arazoak	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Gradu/Master amaierako lana	-	-	1	-	-	-	-	-	1	1
Gradura egokitzea	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Ikasketetarako sarbidea	7	4	1	3	3	1	6	6	6	5(1)
Ikaskuntzaren ebaluazioa	1	-	-	-	-	-	-	-	1	1
Ikasleen portaera	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ikerketa proiektuak	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Informatika aplikazioak	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	-	-	-	1	-	-	1	1	1
Irakaskuntzaren kudeaketa	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Iraunkortasunari buruzko arautegia	-	-	-	-	-	-	-	1	1	-
Jazarpena/jazarpen portaerak	2	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-
Kanpoko praktikak	-	-	-	-	1	-	-	1	-	1
Laguntzak/bekak	-	1	2	2	1	1	1	-	1	-
Lan baldintzak	1	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Matrikula	2	-	-	-	-	-	2	-	1	1
Matrikula baliogabetzea	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Merezimenduen ebaluazioa	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Plazak/ordezkapen poltsak	4 (1)	2	1	1	3	3	5	6(1)	1	1
Presoentzako arreta	-	1	-	-	-	-	-	1	-	-
Prezio publikoak	1	-	-	1	-	-	1	-	-	2
Tituluak eta ziurtagiriak	-	1	1	4 (1)	3	2	1	-	3	4
Unibertsitatera sartzeko probak	3	1	-	-	2	-	1	2	1	-
Zerbitzu ordainak	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Beste batzuk	2	2 (1)	-	3	2	2	-	2	2	4
Guztira	26(1)	14(2)	8(0)	20(1)	18(0)	13(0)	20(0)	26(1)	22(0)	27(1)

1.9. Bulegoaren esku-hartzea

Bulegora iritsi diren 149 aztergaien artetik, 106 kontsultek erantzun egokia izan dute.

39 kexei dagokienez, 10 ez dira onartu: 9 kexa ohiko prozedura ez agortzeagatik (ez ziren presazkoak), eta kexa bat, administrazio ebazpenaren zain egoteagatik.

2023an, gora egin du onartu gabeko kexen kopuruak, berbera izan bada ere jasotako kopurua. Kexa gehienak atzera botatzeko arrazoi nagusia izan da ohiko prozedura ez agortzea. Gogoratu behar da, aldezearen erregelamenduaren arabera, salbuespen kasuetan izan ezik (presazko gaiak), gure zerbitzuak ez duela esku hartzen ohiko prozedurak eta bideak agortu aurretik, erakundeekiko errespetuak eragotzi egiten baitigu gaien eskumena duen instantziaren ordeztaritzea.

Beraz, 29 kexa onartu dira (jasotako % 74,4). Horietatik, 15 ezetsi dira, xehetasunez aztertu ondoren, Zuzenbideak kexaren xedea babesten ez duela kontsideratu delako. Onartutako kexa baten kasuan, aurkezleak berak atzera egin du, kexaren jomuga zen organoak emandako erantzunak gogobete duelako. Beste kasu batean, ebazpen zain daude. Beraz, azkenean, kexa aurkezlearen eskaeraren bat edo denak baietsi dira onartutako kexetatik 12tan (onartutako % 41,4). 6. taulak konparatzen ditu datu hauek aurreko urteetakoekin.

6. taula Jasotako, onartutako eta baietsitako kexak

	Jasoak	Onartuak (jasotako %)	Baietsiak (onartutako %)
2014	74	37 (% 50,0)	21 (% 56,8)
2015	50	32 (% 64,0)	20 (% 62,5)
2016	47	26 (% 55,3)	17 (% 65,4)
2017	41	37 (% 90,2)	18 (% 48,7)
2018	33	30 (% 90,9)	14 (% 46,7)
2019	31	28 (% 90,3)	16 (% 57,1)
2020	39	26 (% 66,7)	11 (% 42,3)
2021	39	31 (% 79,5)	12 (% 38,7)
2022	39	32 (% 82,1)	16 (% 50,0)
2023	39	29 (% 74,4)	12 (% 41,4)
Guztira	432	308 (% 71,2)	157 (% 50,9)

Horrenbestez, azken urte honetan mantendu egin da jasotako kexen kopurua aurreko urteen maila berean, nahiz eta aurreko urteetan baino kexa gutxiago tramitatu eta baietsi diren.

1.9.1. Baietsitako kexen gaiak

7. taulak biltzen ditu baietsitako kexen gaiak. Urdinez nabarmendu dira gutxienez bost urtez errepikatu diren gaiak.

Ikasleen 4 kexa baietsi dira, hainbat gairi buruzkoak (jendaurreko arreta, irakasleen ordezkapenen kudeaketa). Irakasle-ikertzaileen kasuan, 3 kexa baietsi dira. Besteak beste salatzen zuten erantzunik eza unibertsitate organoren bati eginiko eskaeretan, edo desadostasunak ikerketa proiektuekin edota irakaslan esleitzearekin. Bestetik, TEKAZELeko langileen 2 kexa baietsi dira, haien argudio nagusia izanik erantzunik eza dagokion organoari eginiko eskaeretan.

7. taula. Baietsitako kexen gaiak

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Arautegia ez betetzea	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Arazoak kideekin	-	-	2	1	-	-	-	-	-	-
Baliozkotzeak/kredituen aitortza	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Doktorego tesia	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ebaluazio berezia	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-
Euskarazko arreta	-	-	-	1	-	-	-	-	1	-
Gradu/Master amaierako lana	-	1	-	-	-	-	-	1	-	-
Ikaskuntzaren ebaluazioa	-	1	3	3	-	-	3	-	-	-
Ikasleen ordezkari-tza	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Intimitaterako eskubidea	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Irakaskuntza euskaraz	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	1	-	-	-	1	-	-	2	-	3
Irakasleen portaera	-	-	-	-	2	-	-	-	-	-
Iraunkortasunari buruzko arautegia	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Jendaurreko arreta	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Kanpoko praktikak	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Kredituak aitortzea	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Laguntzak/bekak	-	1 (1)	-	-	-	1	-	-	-	-
Matrikula	-	-	-	1	-	1	1	-	-	-
Mugikortasuna	-	1	-	-	-	1	-	-	1	-
Premia bereziak dituzten pertsonentzako arreta	-	-	-	-	-	-	-	2	1	-
Presoentzako arreta	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-
Prezio publikoak	-	1	1	-	-	-	-	-	-	-
Tituluak eta ziurtagiriak	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Ikasleak guztira	5(1)	5(1)	8(2)	6(0)	4(0)	3(0)	4(0)	6(0)	7(0)	4(0)
Aplikazio informatikoen funtzionamendua	-	-	-	-	-	2	-	-	-	-
Arautegia aplikatzeko modua	1	-	-	2	-	-	-	-	-	-
Arazoak kideekin	-	-	-	-	1	1	-	1	1	-
Baimenak	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Burokrazia	-	-	2	-	-	-	-	-	-	-
Datu pertsonalak babestea	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Doktorego tesia	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Erosketak	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Etika zientifikoa (irakasleak)	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Euskarazko arreta	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
GAURen arazoak	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
IHP	1	-	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-
Ikasleen portaera	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Ikerketa proiektuak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Intimitatea, ohorea eta norberaren irudia babesteko eskubidea	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Irakaslanaren banatzea	1	1 (1)	2 (2)	-	1	-	-	-	-	1
Irakaslanaren ebaluazioa	-	-	1 (1)	-	-	2	-	-	-	-
Irakasleen portaera	-	-	-	-	1	1	-	-	-	-
Jendaurreko arreta	-	-	-	1	1	-	-	-	-	-
Laguntzak/bekak	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	1 (1)	-
Lan baldintzak	-	1	1	2 (1)	-	1 (1)	-	-	-	-
Ordezkaritza organoaren portaera	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Plazak/ordezkapen poltsak	3 (1)	2 (1)	-	-	-	-	2	-	1 (1)	1 (1)
Tratu berdintasuna	-	-	-	-	1	1	-	-	-	-
Bestelakoak	3	-	-	-	-	-	-	-	1 (1)	-
IRI guztira	10(2)	6(3)	7(3)	7(2)	6(0)	9(1)	4(0)	2(0)	6(3)	3(1)

7. taula. Baietsitako kexen gaiak (jarraipena)

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Bateraezintasunak	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Erretiroa	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-
Gizarte arretak	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	1	2 (2)	-	-	-	-	1 (1)	-	-	-
Intimitatea, ohorea eta norberaren irudia besteko eskubidea	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Irakasleen portaera	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Lan baldintzak	-	2 (1)	1 (1)	2 (1)	1	2(1)	-	-	1	1 (1)
Merezimenduen ebaluazioa	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	1 (1)
Plazak/poltsak/lekualdatze lehiaketak	1 (1)	-	-	1 (1)	-	1	-	-	2	-
TEKAZEL guztira	3(1)	6(5)	2(1)	3(2)	3(0)	3(1)	2(1)	1(0)	3(0)	2(2)
Espedientea lekuz aldatzea	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Gardentasuna eta gobernu ona	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Ikasketetarako sarbidea	2	1	-	-	-	-	-	1	-	2
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1
Jazarpena/jazarpen portaerak	-	1 (1)	-	-	-	-	-	-	-	-
Plazak/poltsak/lekualdatze lehiaketak	1 (1)	-	-	-	-	-	1	1	-	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	1 (1)	-	1	-	-	-	-
Beste batzuk	-	1 (1)	-	-	1	-	-	-	-	-
Beste batzuk guztira	3(1)	3(2)	-	2(1)	1(0)	1(0)	1(0)	3(0)	0(0)	3(0)
GUZTIRA	21(5)	20(11)	17(6)	18(5)	14(0)	16(2)	11(1)	12(0)	16(3)	12(3)

1.9.2. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak

8. taulan ikus daitezke baietsitako kexen jomuga diren organoak eta kolektiboak (sei urtez edo gehiagoz errepikatzen direnak nabarmendu dira).

8. taula. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak

Kolektiboak eta organoak	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Argitalpen zerbitzua	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Arkitektura GET Zuzendaritza	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Arte Ederren F. Idazkaritza	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Bilboko Hezkuntza F. Dekanotza	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Bilboko Ingeniaritza E. Idazkaritza	-	-	-	-	-	-	-	-	1	-
Bilboko Ingeniaritza E. Zuzendaritza	-	-	-	-	-	-	-	2	-	-
Bizkaiko Campuseko Errektoreordetza	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
DBHko Irakasleen Prestakuntzako M. Zuzendaritza	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Desgaitasunak dituzten pertsonentzako zerbitzua	-	-	-	-	-	-	-	2	1	-
Doktorego E. *	1	-	1	-	-	1	-	-	-	-
Ekonomia eta Enpresa F. Dekanotza	-	-	-	-	-	-	1	-	-	2
Epaimahai Berezia	-	-	1	-	-	-	-	-	-	-
Erosketen atala	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Errektoregoa	1	1	1	-	-	-	-	-	-	-
Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errekt.	-	1	1	-	-	1	-	-	2	-
Gasteizko Erizaintzako UE Zuzendaritza	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Gerentzia	-	-	1	1	1	-	2	2	3	-
Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza	-	-	-	-	1	-	-	-	1	-
Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko Errekt.	1	-	-	1	1	-	-	1	-	-
Graduondokoaren eta Etengabeko Prestakuntzaren Errekt.	-	-	-	1	-	1	-	-	1	-
Hezkuntza eta Kirol F. Dekanotza	-	1	-	-	-	-	-	1	-	1
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F. Dekanotza	-	-	-	-	-	1	-	-	-	-
Idazkaritza Nagusia	1	3	-	-	1	-	-	-	-	-
Ikaslea	-	-	2	2	-	-	-	-	-	-
Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errekt.	-	-	-	-	1	-	-	-	-	-
Ikerketaren arloko Errektoreordetza	1	2	1	-	-	1	-	-	-	1
IKTen Gerenteordetza	-	-	-	1	-	3	-	-	-	-
Ikuskizunaren Arteak eta Zientziak M. Zuzendaritza	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
IMH Ingeniaritza Duala UE Zuzendaritza	-	-	-	2	-	-	-	-	-	-
Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza	5	3	3	3	2	2	1	-	3	3
IRI	1	-	3	1	4	2	2	1	3	-
Itsas Ingeniaritzako M. Zuzendaritza	-	1	-	-	-	-	-	-	-	-
Kanpoko Praktiken Zuzendaritza	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Komunikazio Bulegoa	-	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Legezko ordezkaria	-	-	-	-	-	-	-	1	-	-
Master Lanbideratzailearen Zuzendaritza	-	-	-	2	-	-	-	-	-	-
Medikuntza eta Erizaintza F. Dekanotza	1	-	-	-	-	2	1	1	-	1
Pertsonaleko Gerenteordetza	1	3	-	1	1	1	2	-	-	-
Saileko zuzendariak	4	-	1	-	1	-	1	-	-	1
Sarbidea	2	1	-	-	-	-	-	-	-	2
TEKAZEL	-	-	-	1	-	-	-	-	-	1
UPV/EHU – Osakidetza Batzorde Parekidea	-	-	-	1	-	-	-	-	-	-
Zerbitziburua	1	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Zuzenbide F. Dekanotza	1	1	-	1	-	-	-	-	-	-
Guztira	22	20	17	18	14	16	11	12	16	12

*2019ra arte, Master eta Doktorego Eskolatik iritsitako kexak barne hartzen ditu.

1.10. Jaso dugun erantzuna

Rexen jomuga ziren pertsonen edo organoengandik jasotako erantzuna ona izan da beti (ikus 9. taula):

9. taula. Kexen jomuga ziren organoen erantzuna

Erantzuna	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Ona	15	18	15	16	12	16	10	10	15	11
Ona, neurri batean	3	2	2	1	-	-	-	1	-	1
Ezezkoa	3	-	-	1	2	-	1	1	1	-
Guztira	21	20	17	18	14	16	11	12	16	12

1.11. Inplikaturako zerbitzuen eta arduradunen laguntza

Urteko txostenaren aurkezpenak ematen digun aukeraz baliatuta, eskerrak eman nahi dizkiegu beste behin Aldezlearen zerbitzuarekin kolaboratu duten eta gure lanean lagundu diguten pertsona guztiei: ikastegietako idazkaritzetako eta sailtako langileak, ikastegietako zuzendariak eta dekanok, sailtako zuzendariak, zerbitzuetako arduradunak, Errektore Taldeko kideak, ikasleak, etab.

2. Aldezlearen beste eginkizun batzuk

Rontsultak eta kekek jaso, izapidetu eta ebazteko ohiko jardueraz edo bitartekaritza prozesuez gain, beste zeregin batzuk ere izan ditugu.

2.1. Elkarlana G9 taldeko defendatzaileekin

G9 taldeko defendatzaileen XVI. bileran izan ginen (UPV/EHU talde horretako kide da), 2023ko irailaren 18an eta 19an. Kantabriako Unibertsitateak antolatu zuen. Gai hauek landu ziren:

Prestakuntzako Saio Teknikoa I

- Unibertsitate Igualitario baterako defendatzaileak.

Prestakuntzako Saio Teknikoa II

- Unibertsitate inklusibo baterako defendatzaileak.

Eztabaida Saioa

- Elkarrekin ikasten dugu gure esperientzian oinarrituta: Saio Tekniko I eta IIrekin lotutako azterlan kasuak.

Lan Saioa I

- Buru osasuna eta bizikidetzaren arazoak unibertsitatean.
- Konpondu gabeko iraganeko arazoak eta unibertsitate bizikidetzaren.
- Presentzialtasuna eta etengabeko ebaluazioa.
- Absentismoa/asistentzia.

Lan Saioa II

- Unibertsitate defendatzaileen kudeaketa.
- G9 taldearen ohiko prozedurak.
- Informazioa trukeak.
- Partekatutako tresnak.

2.2. Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen XXV. Jardunaldiak

2023ko urriaren 25etik 28ra, Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen XXV. Jardunaldiak egin ziren Kanaria Handiko Las Palmaseko Unibertsitatean. Gai hauek aztertu ziren:

- 1) Adimen Artifizialaren eta unibertsitate defendatzaileen zereginaren arteko erlazioa.
- 2) Defendatzaileen eta Gizarte Kontseiluen arteko lankidetzaren, LOSUn jasotako gaitasunak gauzatzearen ondorioz.
- 3) LOSU eta unibertsitateko kideen eskubideen defentsa.

- 4) Defendatzaileen lana txertatzea unibertsitateko gatazkak ebazteko bide eta organo berrietan.

2.3. CEDUren XVI. Ohiko Batzar Nagusia

2023ko urriaren 26an, Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziaren XVI. Batzar Nagusia egin zen Kanaria Handiko Las Palmaseko Unibertsitatean.

2.4. Elkarlana CEDUren defendatzaileekin, foroetan parte hartuz.

Unibertsitate defendatzaileen arteko etengabeko lankidetzaren barruan, ohikoa da posta elektronikoa erabiltzea hainbat gai planteatu eta haiei buruzko informazioa eskatzeko. 2023an, gure bulegoak parte hartu eta ekarpenak egin ditu CEDUren defendatzaileek kontsultatutako gaien inguruan. Era berean, erantzun egin diegu aztertutako gaiei buruzko informazioa eskatuz iritsi zaizkigun inkesta guztiei.

2.5. UPV/EHUren Gobernu Kontseiluetan parte hartzea

Aldezlea Gobernu Kontseiluak eginiko bileretan izan da, gonbidatu gisa. Gobernu Kontseiluaren bileretan parte hartzeak aukera eman digu sakonago ezagutzeko gure unibertsitatearen eztabaidak, proposamenak eta akordioak, eta sortzen diren arazoak ezagutu eta ulertzeko, eta hori guztia oso baliagarria izan zaigu gure zereginak betetzeko.

3. Urteko txosten ekonomikoa

2023ko aurrekontua 20.000 eurokoa izan da. 10. taulan ikus daitezke gastuen laburpena eta kontuen egoera, urteko ekitaldi ekonomikoa ixteko datan (abendua 31).

10. taula. 2023eko laburpen ekonomikoa

Hasierako aurrekontua	20.000,00 €
Gastuak	
Bulegoko materiala, fotokopiak...	1.576,14 €
CEDUko bazkide kuotak	225,00 €
Liburuak	151,52 €
Bidaiak eta dietak	7.002,77 €
Beste gastu batzuk	103,44 €
Gastuak guztira	9.058,87 €
Saldoa	10.941,13 €

4. Ondorioak eta gomendioak

2023ko kontsultak eta kexak oinarri hartuta, atal honetan hainbat gogoeta partekatu nahi ditugu unibertsitateko kideekin, bulegora iritsi diren zenbait gairen harira, bai eta gure ustez arreta berezia merezi duten beste batzuen harira ere, gizarteari ematen diogun zerbitzua hobetze aldera.

Ohartarazi nahi dugu lerro hauetan aztertuko ditugun gaiak ez direla erabakigarriak estatistikaren ikuspuntutik eta ezin direla hartu UPV/EHUren jardueraren adierazgarritzat. Gai zehatzak dira, eta bakanak, kasu gehienetan. Edonola ere, uste dugu gai hauei buruz gogoeta egitea, nahiz eta esanguratsuak ez izan unibertsitatearen jarduera osoari dagokionez, ezta gaiak planteatzen dituzten kolektiboek dagokienez ere, mesedegarria izan daitekeela unibertsitatearen zerbitzua hobetzeko, horixe delako azken batean aldezearen egitekoa.

Erreklamazio sistema eta ebaluazio berezia

Hasteko aipatuko dugu aldezeak ofizioz eskatutako analisi bat, zeinaren bidez bi gai zehatzei buruzko informazioa eskatzen zitzaien UPV/EHUko ikastegiei. Alde batetik, informazioa eskatzen genien ikastegiei sailtako eta ikastegietako batzordeen aurrean kalifikazioak erreklamatzeko prozeduren eraginkortasunari buruz, bai eta Errektoregoari ere, ikastegien erabakien kontra aurkeztutako gorako errekursoei buruz. Bestetik, informazioa eskatzen genuen ere ebaluazio bereziari buruzko erabakien eraginkortasunari buruz, hura automatikoa ez den kasuetan. Bi gai horiek aztergai izan ditugu aurreko txostenetan, arreta jarririk berrikusteari loturiko alderdi zehatzetan edo konpentsazio kasu berezietan. Dena dela, eskatutako informazioaren bidez egiaztatu nahi genuena zen nola funtzionatzen duten praktikan bi sistema horiek, hala bazegokion ekimenen bat proposatzeko haien eraginkortasuna edo objektibotasuna hobetze aldera. Eskerrak eman nahi dizkiegu gure lankidetzak eskaerari erantzun zioten ikastegiei, eskatutako datuak biltzeko egin zuten lanagatik eta inkesta beteta bidaltzeagatik. Zoritxarrez, UPV/EHUko ikastegi guztiek ez diote erantzun gure laguntza eskaerari eta, beraz, litekeena da ondorioen norainokoa mugatu behar izatea, gure unibertsitateko ikastegien erdira hain zuzen.

Lehenengo gaiari dagokionez (kalifikazioak berrikusteko sistema), egiaztatu nahi genuen ea, ikuspegi orokor batetik eta kontuan izanik praktikatik ateratako ebidentziak, egokia ote den bere helburua betetzeko kalifikazioak berrikusteko ezarri dugun sistema: ikasleen eskubidea beren errendimendu akademikoaren kalifikazioa objektiboa izateko, eta sistema eraginkorra izateko.

Gai horri dagokionez, Unibertsitateko Ikaslearen Estatutuak (abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretua) oro har ezartzen du ikasleek eskubidea dutela irakasleen (edo epaimahaiaren) aurrean kalifikazioa "berraztertze"ko. Horretarako, haien ariketak berraztertuko dira ebaluazio proben kalifikazioak argitaratu eta hurrengo egunetan, eta kalifikatu zituzten irakasleek edo irakasgai koordinatzaileak ahozko azalpenak emango

dizkiete jasotako kalifikazioari buruz. Berrikuspena izango da pertsonala eta indibidualizatua (30. art.). Ikaslea ados ez badago, hurrengo fasea izango da "erreklamazioa", eta horri dagokionez arau orokorrak honako hau besterik ez dio: *"Contra la decisión del profesor o del tribunal cabrá reclamación motivada dirigida al órgano competente. A propuesta de dicho órgano, se nombrará una Comisión de reclamaciones, de la que no podrán formar parte los profesores que hayan intervenido en el proceso de evaluación anterior, que resolverá en los plazos y procedimientos que regulen las universidades."*

UPV/EHUⁿ, graduko ikasleen ebaluazioaren Arautegiaren 22. artikulua "erreklamazioa" arautzen du, eta ondorengo bi erreklamazio aurkezteko aukera ematen du: lehen, sailean; bigarrena; ikastegian. Azkenik, 24. artikulua azken aukera bat ezartzen du: Ikastegiko Erreklamazioen Batzordearen erabakiaren aurka, gora jotzeko administrazio errekurtsioa jarri ahal izango da hilabeteko epean, errektorearen aurrean, eta horrek bide administratiboa agortuko duen erabakia hartuko du, saileko eta ikastegiko Erreklamazioen Batzordeen txostenak aztertu eta dagozkion aholkuak eskatu ondoren.

Laburbilduz, prozedura hau litzateke: berrikuspen fasea + erreklamazioa sailean + erreklamazioa ikastegian + gorako errekurtsio errektorearen aurrean. Prozedura guztiz garantista da, ondorengo bi erreklamazio fase aurreikusten baitira, alde batera utzirik errekurtsioa. Horixe izango litzateke administrazio bidea amaitu eta, nahi izanez gero, arlo juridikionalera jotzeko prozedura (praktikan ia inoiz gertatzen ez dena graduko ikasketetan).

Beraz, UPV/EHUko ikastegietan bildutako datuen arabera, honako hau izango litzateke Saileko berrikuspen epaimahaiaren aurrean egintako berrikuspenaren efektibitatea:

Kalifikazioak berrikusteko sailetako epaimahaia (22.a art. 1)	Aurkeztutako eskaera kop.	Onartutako eskaera kop.	Baietsitako eskaera kop.
Arte Ederren F.	1	1	0
Bilboko Ingeniaritza E.	4	4	0
Farmazia F.	2	2	0
Gasteizko Ingeniaritza E.	2	2	2
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	21	21	11
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F.	2	2	2
Informatika F.	0	0	0
Zientzia eta Teknologia F.	4	4	0
Zuzenbide F.	8	6	3
Guztira	44	42	18

Iturria: Ikastegietako dekanotzak/zuzendaritzak

¹ Graduko titulazio ofizialtako ikasleen ebaluazioa arautzen duen arautegia.

Datuak ikusirik, zaila da ondorio orokor bat ateratzea, baina nabarmenduko genuke sailaren aurrean eginiko erreklamazioen kopurua ez dela handiegia eta, dirudienez, berrikuspen prozedura eraginkorra dela, kontuan izanik haren helburua. Erreklamatzan duten ikasleei ia beti onartzen zaie eskaera eta, batzordeak azterketa berrikusi ondoren (erreklamazioa egin duen pertsonari entzunda), ehuneko handi batean aldatzen da kalifikazioa (kasuen % 43).

Hurrengo faseak (ikastegiaren aurrean eginiko erreklamazioa) elementu bereizgarri batzuk ditu aurreko faseekin alderatuz gero, ondoko taulan ikus daitekeenez:

Kalifikazioak berrikusteko ikastegiko epaimahaia (22.b art. ¹)	Aurkeztutako eskaera kop.	Onartutako eskaera kop.	Baietsitako eskaera kop.
Arte Ederren Fakultatea	0	0	0
Bilboko Ingeniaritza E.	1	1	1
Farmazia F.	1	1	0
Gasteizko Ingeniaritza E.	0	0	0
Gipuzkoako Ingeniaritza E.	1	1	0
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	5	4	0
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F.	0	0	0
Informatika F.	0	0	0
Zientzia eta Teknologia F.	2	2	0
Zuzenbide F	0	0	0
Guztira	10	9	1

Iturria: Ikastegietako dekanotzak/zuzendaritzak

¹ Graduako titulazio ofizialetako ikasleen ebaluazioa arautzen duen arautegia.

Erantzun duten ikastegi gehienek ez dute erreklamazio bat bera ere jaso, eta baten bat jaso dutenek azkenean ez dute hura baietsi, kasu batean izan ezik. Beraz, pentsa daiteke saileko batzordearen zereginak nahikoa bermatzen duela kalifikazio egokia.

Araudiak (1791/2010 Errege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Unibertsitateko Ikaslearen Estatutua onartzen duena) aitortzen duen ikaslearen eskubidea da azterketa berrikustea irakaslearen aurrean (30. artikulua) eta organo eskudunaren aurrean erreklamatzeko (31. artikulua). Bestetik, UPV/EHUren Estatutuen arabera: *"Horrez gain, (Gobernu Kontseiluak) ikasleak ebaluatzeko arautegia onartuko du, ikasleek ikasketetan duten etekina modu objektiboan ebaluatuko dela eta kalifikazioak berrikusteko eskubidea bermatuko dela ziurtatuko duena* (18. artikulua). Aztertu ditugun datuek, mugatuak eta beharbada nahikoak ez izan arren, erakusten digute aipatutako eskubideak funtsean bideratzen direla ebaluazio arautegiaren 18. eta 22.a artikuluen bidez, eta sortzen zaigun zalantza da gora jotzeko errekurtsoren aurretik ikastegian eginiko erreklamazioaren eraginkortasunari buruzkoa (24. artikulua). Azken horri dagokionez, egin ziren 3 eskaeretatik, bat ez zen onartu eta beste biak ezetsi egin ziren. Ez da gorako errekurtsio askorik jartzen, eta logikoa da, ikastegian

eginiko erreklamazioak aurreratzen duelako jada zein izan daitekeen gorako errekurtsoren emaitza: hots, bideratuagoa aztertzeraz alderdi formalak eta enuntziatuak programetara egokitzen ote diren, funtsezko gaiak aztertzeraz baino. Ikastegian eginiko erreklamazioak urriak dira, eta baldintza da hori gorako errekurtsoa aurkezteko.

	Aurkeztutako eskaera kop.	Onartutako eskaera kop.	Baietsitako eskaera kop.
Ikastegiko erreklamazio batzordearen erabakiaren aurkako gorako jotzeko errekurtsuak (24. art. ¹).	3	2	0

Iturria: Ikastegietako dekanotzak/zuzendaritzak
1 Graduako titulazio ofizialeko ikasleen ebaluazioa arautzen duen arautegia

Ikus daitekeenez, sailtako erreklamazio batzordeak dira praktikan zuzentzen dituztenak irakasleek ebaluazioan egin ditzaketan akatsak. Hortaz, oso txikia da ikastegian eginiko erreklamazioen efektibitatea, bai eta errektorearen aurrean eginiko gorako errekurtsuarena ere.

Informazioa eskatu genuen bigarren gaia izan zen ebaluazio bereziaren eskaeren emaitzei buruzkoa. Ebaluazio berezia araututa dago graduako ikasleen ebaluazioa arautzen duen arautegiaren 27. artikuluan eta hurrengoetan. Sistemak baldintza batzuk jartzen ditu ebaluazio hori eskatzeko. Zehazki, 29. artikulua haxe dio:

- 1.- *Ebaluazio bereziaren bidez gainditu nahi den irakasgaiari matrikulatuta egotea eskaria egiten den ikasturtean.*
- 2.- *Titulazioan ebaluazio bereziaren bidez gainditu daitezkeen kredituen %90 gaindituta edukitzea. Ezin izango da inola ere ebaluazio berezirik eskatu Gradu Amaierako Lanerako eta Practicumerako.*
- 3.- *Gehienez ere, titulazioko kreditu guztien %6ari dagozkion irakasgaien ebaluazio berezia eskatu ahal izango da. Salbuespena izango da irakasgai bakarrak titulazioko ECTS kredituen %6 baino gehiago izatea: horrelakoetan, irakasgai ebaluazio bereziaren bidez gainditzeko eskaria egin ahal izango da.*
- 4.- *Ikasleak ebaluazio bereziaren bidez gainditu nahi duen irakasgai hiru deialdi behintzat, erabilita izatea.*
- 5.- *Deialdietakoren batean, gutxienez, hiru puntuko kalifikazioa lortuta izatea.*

Baldintza horiek betetzeak ez du esan nahi irakasgai besterik gabe ebaluazio berezi bidez gaindituko denik, eta, hala badagokio, Epaimahai Bereziak erabaki beharko du hori, kontuan izanik hurrengo artikuluan aipatzen diren irizpideak.

Hain justu, 30. artikulua bi kasu aipatzen ditu: lehenengo kasuan, epaimahai bereziek onartu egingo dituzte automatikoki hiru baldintza betetzen dituzten eskaera guztiak (*ikasleak irakasgaiko lau deialdi gutxienez erabilita izatea; deialdiren batean gutxienez lau puntuko kalifikazioa lortuta izatea; gradu amaierako lana kenduta, titulazioa amaitzeko geratzen zaion azken irakasgaia izatea*); bigarrenean, ez dira automatikoki ebatziko ebaluazio berezia eskatzeko baldintzak bete arren aurreko atalean aipatutako baldintzak (*irakasgaia gainditzea dakartenak*) betetzen ez dituzten eskaerak.

Azken kasu horietan (automatikoki onartzen ez direnak) jarri dugu arreta. Horiei dagokienez, arautegiaren arabera: ikastegiko Epaimahai Bereziak parametro hauek hartuko ditu kontuan eskaera ebazteko orduan:

- a) *Lehenik eta behin, ikastegiko batzorde akademikoak onartutako irizpideak, unean uneko ikasturteko matrikula aldia baino lehen argitaratuko direnak. Epaimahai bereziek onartu egingo dituzte irizpide horiek betetzen dituzten eskari guztiak.*
- b) *Ebaluazio berezia eskatzeko baldintzak bete arren ez badira betetzen ikastegiko batzorde akademikoak onartutako irizpideak, kontuan hartuko dira eskaria ebazteko ikaslearen espediente osoa (besteak beste, ikasketetan emandako denbora) eta ikaslearen errendimendu akademikoari zuzenean eragiten dioten egoera hauek, ikasleak berak alegatu eta justifikatu beharko dituenak: % 33ko desgaitasun maila edo handiagoa izatea; hiruhileko bat edo gehiago ematea gaixorik; lan arazoak; genero indarkeriaren biktima izatea; erditzea, adopzioa, harrera edo hiru urte baino gutxiagoko seme-alaben ardura izatea; ikaslearekin bizi den mendeko senidea zaintzea; goi mailako kirolaria izatea; ezohiko emaitzak izatea ebaluazio berezia eskatzen den irakasgaian, espedienteko gainerakoekin alderatuta; eta errendimendu akademikoari zuzenean eragiten dioten beste egoera batzuk, ikasleak alegatu eta justifikatuak.*

Ikastegiko epaimahai bereziaren erabakia arrazoitu egin beharko da.

Hori horrela, datu hauek nabarmendu daitezke aldezeak eginiko inkestaren emaitzetatik:

Ebaluazio bereziaren eskaerak (30.b art. 1)	Aurkeztutako eskaera kop.	Onartutako eskaera kop.	Baietsitako eskaera kop.
Arte Ederren Fakultatea	0	0	0
Bilboko Ingeniaritza E.	25	14	10
Farmazia F.	1	1	0
Gasteizko Ingeniaritza E.	8	6	6
Gipuzkoako Ingeniaritza E.	13	13	8
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	8	4	4
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F.	4	4	0
Informatika F.	4	4	3
Zientzia eta Teknologia F.	12	5	1
Zuzenbide F	8	6	4
Guztira	83	57	36

Iturria: Ikastegietako dekanotzak/zuzendaritzak

¹ Graduak titulazio ofizialetako ikasleen ebaluazioa arautzen duen arautegia.

Ikastegietan egiten diren eskaeretako asko ez dira onartzen, ebaluazio berezi bidez gainditzeko baldintzak ez betetzeagatik (29. artikulua). Baldintzak betetzen dituztenen artetik, ikastegietan onartutako eskaeren % 63 inguru baiesten dira (automatikoki ez bada ere, ikastegietako batzorde akademikoek onartuta dituzte ebazteko erabiltzen dituzten irizpideak, eta argitaratu egiten dituzte). Gainerako eskaerei dagokienez, ikastegietan ezetsi eta gorako errekurso bidez errekurritzen direnen artetik, erdiak baino gehiago (% 54) baiesten dira instantzia horretan.

	Aurkeztutako eskaera kop.	Onartutako eskaera kop.	Baietsitako eskaera kop.
Epaimahai Bereziak ezestearen aurkako gorako errekursoak (33. art.1).	28	28	15


Iturria: Ikastegietako dekanotzak/zuzendaritzak

¹ Graduak titulazio ofizialetako ikasleen ebaluazioa arautzen duen arautegia.

Ebaluazio bereziaren sistema, automatikoa ez den kasuetan, tresna eraginkor bat da, eta horretan laguntzen du ikastegiek alde aurretik irizpide orokorrak ezartzeak.

Aurretiko hitzordua

UPV/EHUren Erregistro Orokorraren web ofizialean sartuz gero, irakur daiteke "ERREGISTRO BULEGOEK AURRETIKO HITZORDUAREKIN LAN EGITEN DUTE". Zehazki, webaren bidez sar gaitzke zuzenean orri ofizial honetara:



Gure web ofizialaren arabera, honako hauek dira aurretiko hitzordua eskatzen duten bulegoak:

- Akademia Kudeaketako Bulegoa eta Erregistro Orokorraren Bulegoa - Gipuzkoako Campusa
- Arkitektura Goi Eskola Teknikoa - Gipuzkoako Campusa
- Arte Ederren Fakultatea - Bizkaiko Campusa
- Beste izapide akademiko batzuk (Leioa) - Bizkaiko Campusa
- Bilboko Hezkuntza Fakultatea - Bizkaiko Campusa
- Bilboko Ingeniaritza Eskola, I eraikina
- Bilboko Ingeniaritza Eskola, Portugalete eraikina
- Doktorego Eskola - Bizkaiko Campusa
- Ekonomia eta Enpresa Fakultatea - Arabako Campusa
- Ekonomia eta Enpresa Fakultatea - Gipuzkoako Campusa
- Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Elkano) - Bizkaiko Campusa
- Ekonomia eta Enpresa Fakultatea (Sarriko) - Bizkaiko Campusa
- Erregistro Orokorra (Errektoretza Leioa) - Bizkaiko Campusa
- Errektoregoa. Jendaurreko Arreta eta Erregistro Orokorreko Bulegoa - Arabako Campusa
- Esperientzia Gelak - Bizkaiko Campusa
- Esperientzia Gelak - Gipuzkoako Campusa
- Farmazia Fakultatea - Arabako Campusa
- Gasteizko Ingeniaritzako Eskola - Arabako Campusa
- Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Donostia) - Gipuzkoako Campusa
- Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola (Eibar) - Gipuzkoako Campusa
- Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea - Bizkaiko Campusa
- Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (Hezkuntza eta Ikasgela Gelak) - Arabako Campusa
- Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak) - Arabako Campusa

- Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (HEFA I) - Gipuzkoako Campusa
- Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (HEFA II) - Gipuzkoako Campusa
- Informatika Fakultatea - Gipuzkoako Campusa
- Kimika Fakultatea - Gipuzkoako Campusa
- Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea - Arabako Campusa
- Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea - Bizkaiko Campusa
- Larrako Etxeako Informazio Bulegoa
- Letren Fakultatea - Arabako Campusa
- Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea - Gipuzkoako Campusa
- Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea - Bizkaiko Campusa
- Psikologia Fakultatea - Gipuzkoako Campusa
- Sarbidea eta Bekak (Bilbo) - Bizkaiko Campusa
- Sarbidea eta Bekak (Leioa) - Bizkaiko Campusa
- Tituluen Unitatea (Leioa) - Bizkaiko Campusa
- UPV/EHUren Odontologia Klinika
- Zientzia eta Teknologia Fakultatea
- Zuzenbide Fakultatea - Bizkaiko Campusa
- Zuzenbide Fakultatea - Gipuzkoako Campusa

Rontu honi dagokionez, esan behar dugu ez garela harremanetan jarri gure web orriaren arabera aurretiko hitzordua eskatzen duten zerbitzu guztiekin, egiaztatzeko ea hartzen dituzten hitzordua eskatu ez duten pertsonak edo hitzordua egitea ezinbestekoa den. Nolanahi ere, kezkatzen gaituena da aurretiko hitzordua arautegian ezartzeko balizko aukerak eta horren oinarriak. Gaur egun proportzionala ote den. Gai honen inguruan beren iritzia eman dute hainbat erakundek, bereziki Herriaren Defendatzaileak eta EAEko Arartekoak, bai eta instantzia judizialen bat ere, eta bat gatoz horiek ateratako ondorioekin, ondoko lerroetan azalduko ditugun arrazoiengatik.

UPV/EHUK, beste administrazio publikoek bezala, bete egin behar ditu "sinpletasun, argitasun eta herritarrekiko hurbiltasun" printzipioak (40/2015 Legea urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena - 3.1 art.). UPV/EHUren Estatutuen 2. artikulua dioenez, *"UPV/EHUK, zereginak aurrera eramatean, honako printzipio hauek hartuko ditu aintzat: legezotasuna, eraginkortasuna, eragimena, gardentasuna, kalitatea eta ahalik eta zerbitzurik onena ematea gizarteari eta unibertsitateko kideei"*.

Rasu gehienetan, zerrendan dauden bulegoak dira unibertsitate administraziora sartzeko lehen atea, TEKAZELEko langileentzat, ikasleentzat, irakasle-ikertzaileentzat edo kanpoko pertsonentzat, eta pertsona horiek bulego horietara jotzen dute kalitatezko zerbitzu publikoa jasoko dutelakoan, administrazio onean oinarritua (oinarrizko eskubidea Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 41. artikuluan) eta herritarren beharrei erantzutera bideratua.

Aurretiko hitzorduak zentzua izan zuen pandemiaren garaian, interes publikoko helburu bati erantzuten ziolako: ilarak eta jende pilaketak saihestea. Hau da, aurretiko hitzordua ezarri zen SARS-CoV-2 (COVID-19) koronabirusaren pandemian osasun publikoa

babesteko hartu ziren neurri orokorren baitan. Zorionez, gaurkoa beste egoera bat da eta ez dugu murrizketarik osasun publikoaren alorrean, eta horregatik gogoeta egin behar dugu gure unibertsitateko bulegoetan arreta presentziala jasotzeko aurretiko hitzorduaz.

Norbaitek esan lezake antolakuntza irizpide edo irizpide tekniko bat dela, arreta presentzial egokiagoa eskaintzeko eta itxaron ilararik ez sortzeko unibertsitate zerbitzuetan. Alde horretatik, badago adierazpen jurisprudenzialik: *“el sistema de cita previa solo se justifica para garantizarla agilidad en la celebración de los trámites”* (2023/12/7ko STSJM 14030/2023). Ondorioz, aurretiko hitzorduak zentzua izan lezake jendez gainezka dauden zerbitzuetan, baina sortzen den zalantza da ea neurri proportzionala den halako egoerarik ez duten bulegoetan.

Ez dugu daturik esateko egoera hobetu den ala ez, UPV/EHUn aurretiko hitzordua ezarri aurreko etapari dagokionez. Dena dela, gehiegizkoa iruditzen zaigu aurretiko hitzordua nahitaez exijitzea helburua baldin bada administratutako pertsonen eskubideak babestea. Gure ustez, administrazioak bere burua antolatzeko duen ahalmenak legitimitatea ematen dio Unibertsitateari alde aurreko hitzordu sistema ezartzeko, pertsonen arretarako bulegoen kudeaketa antolatzeko neurri gisa, bai eta arreta ziurtatzeko ere ezarritako egunean eta orduan. Hala eta guztiz ere, zalantzan jartzen dugu aurretiko hitzordua orokortzea, nahitaezko baldintza gisa, baldin eta arazo gehiago sortzen badizkie gure bulegoetan izapideak egin nahi dituzten pertsonen. Aurretiko hitzordua ezin da izan ezinbesteko baldintza, arriskuan jartzen badu administratutako pertsonen eskubidea jendaurreko bulegoetara edo erregistrora jotzeko, behar dutenean –jendaurreko arretaren orduategian– eta ez administrazioak esleitutako egunean eta orduan.

Rasu batzuetan, garrantzia du eskaera bat aurkezteko uneak edo izapide jakin bat formalizatzeko uneak, eta zentzua izan dezake unibertsitate administrazioa aurretiko hitzordu bidez aritzeak: adibidez, automatrikulen garaian. Nolanahi ere, alde batera utzirik unibertsitate arautegiak *prior in tempore, potior in iure* printzipioari bide ematen dion kasu zehatzak, nekez justifika daiteke eskubideez baliatzeari baldintzatzaile edo zama gehigarri bat gehitzen dion neurririk.

Aldezlearen ustez, aurretiko hitzordua irtenbide bat izan daiteke kudeaketa eta herritarrei emandako zerbitzu publikoa hobetzeko, baldin eta interesdunaren borondatearen esku uzten bada. Dena dela, eskaerak eta dokumentuak aurkezteko aurretiko hitzordua bai ala bai ezartzeak ez dirudi interes orokorrean eta Ordenamendu Juridikoan (ez unibertsitate ordenamenduan ez ordenamendu orokorrean) oinarritutako neurria denik, eta ez dator bat ere administrazio egokirako eskubidearekin. Hori horrela, aldezleak agerian utzi nahi du nahitaezko aurretiko hitzorduak ez duela arautegiaren babesik, baldintza gisa, unibertsitatean arreta presentziala jasotzeko. Oro har, pertsona fisikoek eskubidea dute aukeratzeko zer bitartekoren bidez jarri nahi duten harremanetan administrazioekin, eta soilik kolektibo batzuk daude behartuta baliabide elektronikoak erabiltzera. Arreta presentziala nahi duenak aukera izan behar du arreta hori eskuratzeko aurretiko hitzorduaren “suebakirik” gabe. Araudiak ez dio ezinbestekoa dela baldintza hau edo hura betetzea arreta presentziala jasotzeko. Aurretiko hitzordua ezin da hartu arreta presentziala jasotzeko sarbidetzat.

Arreta bulegoetako baliabideen kudeaketaren efikazia eta efizientzia hobetzeko helburu legitiemoa ezin da izan aitzakia legeak herritarrei aitortzen dizkien eskubideak murrizteko, arreta pertsonala eta erregistroetarako sarbidea arautegiak babesten ez dituen baldintzen pean utzirik.

Herriaren Defendatzaileak 2022ko urteko txostenean zioenez: "*Cuando las administraciones establecen únicamente la vía telemática para la concertación de la cita previa, requerida para la realización de cualquier trámite, y no disponen de mecanismos de atención presencial, ni tan siquiera para solventar situaciones de urgencia, se convierte en un obstáculo para el ejercicio de los derechos de los ciudadanos y el cumplimiento de sus obligaciones*".

Aldezlearen iritzian, aurretiko hitzordua interpretatu behar da pertsonen arretarako lehenetsuneko bide gisa, baina ez baldintza absolutu gisa, alde batera utzirik unibertsitateko pertsonen antolamendua inguruabar objektiboen mende dagoen kasuak eta pertsona horiek egoera bat antolamendu horren arabera hobetzeko jardun behar duten kasuak, edota pertsona asko biltzen diren kasuak.

Horiek horrela, aldezlearen gomendioa da unibertsitateko kideek gogoeta egitea nahitaezko aurretiko hitzordua kentzeko aukerari buruz (UPV/EHU izapideak egitean eta eskaerak nahiz idatziak aurkeztean, goian aipatutako kasuetan izan ezik), aurretiko hitzorduen sistema borondatezkoa izatea UPV/EHUrekin harremanetan jartzen diren pertsonentzat eta hori hala jasota gelditzea unibertsitatearen web ofizialean.

Zuzendutako ebaluazio probetara sartzeko modua

Gure aurreko txostenetan aipatu izan dugu ikasleek duten eskubidea zuzendutako ebaluazio probak eskuratzeko, bai eta haien kopia lortzeko ere, kalifikazioen berrikuspen eta erreklamazio prozeduren baitan. Gai horri dagokionez, geure burua zoriondu behar dugu UPV/EHUko Gradu Ikasketen eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreordeak 2023ko abenduaren 22an onartu zuen Aginduagatik, graduiko ikasleak ebaluazio proben kopia lortzeari buruzkoa.

Agindu horrek erantzun egin nahi dio gure ikaslegoaren zati handi batek galdatutako eskubide bati. Prozedura hauxe da funtsean: ikasleak idatziz aurkeztu behar du eskaera, e-mail bidez bidalita irakasgaia eman duen irakasleari. Edozein ebaluazio proba izan daiteke, irakasgaiaren kalifikazioa zehazten duena. Ebaluazio proba baten kopia eskatu behar da irakasgaiaren behin-behineko kalifikazioa jakin ondoren, proba berrikusteko unean edo behin betiko kalifikazioen aktak argitaratu eta hurrengo 3 egun naturaletan. Behin eskaera aurkeztuta, irakasleak 3 egun izango ditu kopia entregatzeko. Epe horretan erantzunik ez badago, ikasleak mezu elektronikoko bat bidaliko dio irakasgaiaren ardura duen saileko zuzendariari, eta honek ahal bezain laster entzungo du.

Kopia entregatu behar da sailean erreklamazioak aurkezteko epea amaitu baino 3 egun natural lehenago gutxienez, eta, behin azterketaren kopia eskatuta, sailean erreklamazioa

aurkezteko 6 egun naturaleko epea ez da zenbatzen hasiko ikasleari kopia eman arte. Aginduak, beraz, epeak eteteko irizpide bat sartzen du.

Dokumentua entregatzeko moduari dagokionez, aginduak dio irakasleak, behin ikasleak eskaera eginda, galderen eta ikasleak galderei emandako erantzunen kopia emango diola. Hori bai, litekeena da zuzendutako ebaluazio probek irakaslearen oharrak edukitzea. 2022ko txostenean genioen bezala, ebaluatzen duen irakaslearen oharrak dituen azterketa zuzenduak datu pertsonalak ditu, ez bakarrik irakaslearenak, baita zuzenketa egin duen pertsonarenak ere. Hala aitortzen du Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2017ko abenduaren 20ko epaian, C-434/16 gaiari buruzkoan, non honako hau irakur daitekeen:

“⁴⁴ La comprobación de que las anotaciones del examinador sobre las respuestas dadas por el aspirante durante el examen son datos que, debido a su contenido, finalidad y efectos, están relacionadas con ese aspirante no queda desvirtuada por el hecho de que tales anotaciones también son datos que conciernen al examinador”

“⁴⁵ En efecto, unos mismos datos pueden concernir a varias personas físicas y, por lo tanto, ser datos personales de cada una de estas, en el sentido del artículo 2, letra a), de la Directiva 95/46, siempre que tales personas sean identificadas o identificables”

Hori horrela, datu horien tratamenduak bete egin behar ditu datu pertsonalak babestearen printzipioak eta bermeak; bereziki, haien tratamendurako legitimazioa.

Gai horri dagokionez, aginduaren arabera, azterketa zuzenduak irakaslearen oharrak izateak ez du eragotziko eskatutako kopia entregatzea, nahiz eta irakasleak oharrak estali edo ezabatu ahal izango dituen, kopia entregatu aurretik, baldin eta eraginik ez bada entregatu beharrekoaren edukian. Aginduak gomendatzen du irakasleak beste orri batean idazteko zuzenketa beharrezkoak iruditzen zaizkion oharrak.

Probaren kopia entregatuko da ahal bada eskaneatuta, posta elektronikoko bidez, ikaslearen helbide elektronikoko ofizialera (UPV/EHUK emandakoa). Era berean, kopia eskatu duen ikasleari jakinaraziko zaio dokumentu hori erabiliko dela soil-soilik berrikuspen edo erreklamazio zereginetarako, eta ohartaraziko zaio datu pertsonal horiek zabaltzeak edo inoren esku uzteak, datuei dagozkion pertsonaren baimenik gabe, erantzukizunak sor litzakeela, datu pertsonalen babesari lotuta indarrean dagoen legeriaren arabera.

Aldezleari oso egokia iruditu zaio ikasleen eskubide hau prozedura batean jaso izana, eta behar bezalako zabalkundea eman nahi dio.

Egiletza diziplina prozeduretan

Administrazio zuzenbide zehatzailean funtsezkoa da egitatezko erantzukizunaren printzipioa; hau da, erantzukizuna sortzen da soil-soilik falta gisa tipifikatutako egitate zehatzetan parte hartzeagatik. Printzipio hori oso garrantzitsua da, eta lotuta dago legezketasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioekin. “Egilearen” zuzenbide

zehatzailea aplikatu ezin denez, ezin da pertsona bat zigortu haren jokabide generikoagatik edo portaera orokorragatik, egitate zehatzetan parte hartu ez badu.

Hori oinarritzen da norberaren egitateengatiko erantzukizunaren printzipioan, eta horrek esan nahi du erantzukizuna sortzen dela soil-soilik falta gisa tipifikatutako egitateetan parte hartu dutenengandik, tipifikazio horretan ezarritako moduan. Horrela, hasieratik, baztertu egin behar da zigorra aplikatzea hirugarrenei egotzitako diziplina erantzukizuna sortu duen jardunetik kanpo daudenei. Ezin da justifikatu norbaitek erantzun behar izatea hirugarren baten egitateengatik, horietan zuzenean edo zeharka esku hartu ez badu. Hori horrela da zigor arloaren ikuspegi hertsitik, eta besterik da zilegi ez den egitatearekin lotuta egon daitekeen kalteen erantzukizun zibila hedatzeko aukera.

Arau-hausteen erantzuleak egileak dira, lege batek besterik dioenean izan ezik. Egileak dira tipifikatutako ekintza egin dutenak, eta ikuspegi zorrotz hori sortzen da legezketasun printzipiotik. Tipifikatutako ekintza egin ez duen norbait zigortzea legezketasunaren aurkakoa litzateke, legeak aurreikusten ez badu. Unibertsitate Bizikidetzari buruzko Legeak (LCU) ez du egiletzaren definiziorik.

Litekeena da subjektu bakar batek ez egikaritzea arau-haustearen elementu guztiak; halaber, pertsona batek baino gehiagok, guztiek, gertakariaren domeinua izatea eta horiek egitatea egin den eta nola definitu ahal izatea. Arau-haustea proposatu, eragin, bultzatu edo lagundu dutenak, are arau-haustea gerta zedin ezinbestekoak izan diren egitateekin ere, ez dira egiletzat hartuko.

Subjektu batek baino gehiagok arau-hauste bakarra egin badute, zehapenaren izaera pertsonalak administrazioa behartzen du parte-hartzaile bakoitzari dagokion erantzukizuna indibidualizatzerara. Ezin da inor zigortu beste batzuen jokabideagatik, eta zehapena indibidualizatzeko eskakizuna erantzukizun pertsonalaren printzipiotik sortzen da.

Kontuan hartu beharreko bigarren gauza da egiletzaren kontzeptua ezin dela bereizi arau-haustearen tipifikazioa finkatzen duen artikuluko zehatzetik. Horrela, LCUren 11.e) artikulua araberaren arabera, egitate tipifikatua baldin bada *“utilizar documentos falsos ante la universidad”*, falta horren egilea izango da dokumentuak erabili dituenak, ez erabiltzera bultzatu duena edo eragotzi ez duena. Gauza bera gertatzen da *“suplantar a un miembro de la comunidad universitaria en su labor propia”* arau-haustean: egilea izango da besteren nortasuna hartu duena, ez hori egitera bultzatu duena, ezta horretan lagundu duena ere.

Arazo gehiago daude ez-egiteak eragindako faltetan egiteak eragindako faltetan baino. Kontua ez da jokabide aktibo bat, tipifikatutako emaitza sortzen duen ekintza bat ez egitea baizik. Adibidez, plagio batean, azterketa baten edukiak teknologia elektronikoaren bidez transmititzean, unibertsitate ebaluazioko proba batean eginiko *“txibatazo”* klasikoan, kontuan hartu behar den gai bat da noraino heltzen den diziplina erantzukizuna esku hartu duten subjektuei dagokienez. Kasu horietan, bi subjektuk edo gehiagok esku hartzen dute faltan, nahiz eta bakarra izan iruzurrari etekina ateratzen saiatzen dena.

LCUren 11.g artikulua honela definitzen du iruzur akademikoa:

“Se entenderá como fraude académico cualquier comportamiento premeditado tendente a falsear los resultados de un examen o trabajo, propio o ajeno, realizado como requisito para superar una asignatura o acreditar el rendimiento académico”.

Artikuluak ez du aipatzen soilik norberaren lan edo azterketa batean eginiko iruzurra, eta besteren lan edo azterketa batean eginikoa ere aitatzen du. Beraz, iruzur akademikoaren egiletza bigarren kasu horretara ere zabaltzen da. Azterketa batean “txibatzen” duenak, bere borondatez beste bati kopiatzen uzten dionak (errua dagoenean behintzat)... iruzur akademikoa egiten du, iruzurrari etekina ateratzen dionak bezalaxe (egile gisa).

Iruzur akademikoaren tipifikazioaren arabera, laguntzailea izango da, maila batean edo bestean, iruzurrez onura ateratzen duenaren legez kontrako egitatean.

Aintzat harturik LCUren erregulazio urria, laguntzailea eta egilea parekatzea izango da haren birtualtasun komisiboaren eta parte hartzearen antijuridikotasunaren esanahiaren arabera. Aztertu egin beharko da ea egintza hori ezinbestekoa eta erabakigarria den, ala ez, falta egikaritzean.

Iruzur akademikoaren tipifikaziotik sortzen den beste gai bat da premeditazioa. Horrela dio legearen artikuluak: *“Se entenderá como fraude académico cualquier comportamiento premeditado tendente a falsear..”*. Artikuluaren irismenak zalantzak sortzen ditu. Irakasle batek ikasle bat harrapatzen badu kopiatzen “txuleta” batekin, telefono mugikorrarekin, aurikularrekin... premeditazioa dago, baina ikasle horrek aurrean eserita duen ikaskideari kopia diezaiokeela ikusi eta espontaneoki egiten badu, edo test motako azterketa batean norbait ikaskideei erantzunak “kantatzen” hasten bada... hor premeditazioa dago?

Legezkotasun zehatzailearen printzipioari jarraiki (EKren 25. artikulua), zalantzak daude horri buruz. Unibertsitate Bizikidetzaren Legeak ez du jarraibiderik ematen premeditaziorik gabeko kasuetan jarduteko moduari buruz, eta horrek gaia prozedura akademikoaren bidez bideratzea dakar, ez prozedura zehatzailearen bidez.

Laguntza diziiplina prozeduretan

Oro har, LCUk ez du ia erruduntasunari buruzko araurik. 9.2 artikuluaen arabera:

“El estudiantado que colabora en la realización de actos o conductas constitutivas de falta muy grave también incurrirá en responsabilidad disciplinaria”.

Atal horrek diziiplina erantzukizuna zabaltzen du lagundu duten ikasleen multzora, modu mugatuan bada ere.

Falta oso astunen kasuan (*“faltas muy graves”*) bakarrik errekonozitzen da laguntzaileen diziiplina erantzukizuna. Legeak ez du diziiplina erantzukizunik aurreikusten falta arinen edo astunen kasuan. Bi falta mota horietan laguntzen duten pertsonak ez dute erantzukizunik izango.

Izaera selektibo horrek zalantzaren bat sortzen du. Horrela, astuntzat jotzen diren faltei erreparatzen badiegu, hala nola "*apoderarse indebidamente del contenido de pruebas, exámenes o controles*" (12.a art.), "*deteriorar gravemente los bienes catalogados del patrimonio histórico y cultural de la universidad*" (12.b art.) edo "*cometer fraude académico*" (12.d art.), pentsa daiteke norbaitek lagundu egin duela falta horiek burutzen. Are gehiago, azken kasu horretan, laguntza zigortzeko modukoa izango da soilik iruzurra egin bada Gradu Amaierako Lanean, Master Amaierako Lanean edo Doktorego Tesian, baina ez beste kasuetan (azterketak, ebaluazio probak, lanak...), eta zaila da hori teknikoki justifikatzea eta egokitzea diziplina araubidearen arauetara, duen izaera selektiboagatik.

Kasu horietan, tipikotasunaren printzipioak hala agindurik, nolabaiteko zehaztasunez ezarri behar da lankidetzak, alde aurretik jakiteko zer laguntza mota eta zer neurritan gertatu behar den, zehapena jasotzeko modukoa izateko. Laguntzak ere, gutxienez, errua eskatzen du. Eta, jakina, laguntza zehatu egin beharko da egilearentzat aurreikusitakoa baino zehapen txikiagoarekin, proportzionaltasun printzipioaren arabera.

Iruzur akademikoa eta irakaskuntza gidak

Bulegora heldu zen kasu batean planteatu zitzaizkigun irakasgai baten bost probetako (entregableak) batean eginiko iruzur akademikoaren ondorioak. Irakaskuntza gidaren arabera, tailerraren bidez ebaluatutako zatiaren balorazioa zen irakasgaiaren amaierako balorazioaren % 20. Irakasleak plagioa aurkitu eta egiaztatu zuen (ezbaian jarri ez zuena kasuan inplikaturako alde bakar batek ere), tailerreko bost probetako batean, eta 0 nota jarri zion probari. Gainera, jakinarazi zien plagioa egin zuen taldeko ikasleei ez-gainditutzat emango zuela irakasgaia plagioa detektatu zen lauhilekoari zegokion deialdian.

Berriz ere, kasu hau kokatzen da zehatu beharrekoaren eta hertsiki akademikoa denaren arteko marjinetan, aurreko txostenetan jada aipatu duguna. Beraz, galdera litzateke ea irakasleak, ikuspegi akademikotik, irakasgaia ez-gainditutzat eman dezakeen tailerreko proba batean iruzurra egiteagatik. Aldezlearen iritzian, erantzuna ez da sinplea.

2022ko txostenean esan genuen bezala, uste dugu bateragarriak direla erantzun akademikoa eta erantzun zehatzailea, bi-biak, eta horrek ez duela baliogabetzen *bis in idem* konstituzio printzipioa (zehapen bikoitza gertakizun beragatik, alor akademikoan ez gaudelako zehapen baten kasuan). Zehatu behar dena da noraino iristen den "alor akademikoa" eta noraino "zehatzailea", onartezina delako erantzun akademikoaren eraginez ondorio zehatzaile bat gertatzea, dagokion prozedura izapidetu gabe (zehapen prozeduraren bermea).

Aztergai dugun kasuan, Bizikidetzari buruzko Legearen eta UPV/EHUko ikasleen diziplina prozeduretako arau-hausteen eta zehapenen katalogoaren arabera, arau-hauste astuna izango litzateke, lege horren 12.d) artikuluan honela tipifikatua: "*cometer fraude académico, definido éste de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 11.g*". Era berean, UPV/EHUko ikasleen Falta eta Zehapenen Araubidearen Erregelamenduaren 5.e) artikulua arau-hauste astun gisa tipifikatzen du ere jokabide bera, eta horren barruan sartzen ditu: "*La*

comprobación fehaciente de copia de la prueba de evaluación de otro u otra estudiante con o sin el consentimiento de este último”, “Facilitar activamente a otro u otra estudiante la copia en los exámenes” edo “Plagiar en un trabajo presentado para la evaluación, que no sea el Trabajo de Fin de Grado, el Trabajo de Fin de Máster o a la Tesis Doctoral”.

Bizikidetzari buruzko Legearen 14.4 b) artikulua araberan, arau-hauste hori honela zigor daiteke: *“pérdida del derecho a la convocatoria ordinaria en el semestre académico en el que se comete la falta y respecto de la asignatura en la que se hubiera cometido.”* Iruzur akademikoa zigorra merezi duen jokabide desonest eta ez-etikoa bada ere, nahitaezkoa da horretarako dagokion zehapen prozedura burutzea. Bizikidetzari buruzko Legeak behartzen du diziplina prozedura martxan jartzera zigortu ahal izateko (18.a artikulua: *“En ningún caso se podrá imponer una sanción sin que se haya tramitado el necesario procedimiento”*), nahiz eta ez duen argibiderik ematen horren eta neurri akademikoen arteko bateragarritasunari buruz.

Gaiari heltzen badiogu ikuspegi akademikotik, UPV/EHUren Ikasleen Ebaluaziorako Arautegiak suspentsoa aurreikusten du ebaluazio proba batean kopiatu egin dela frogatzen bada. Dena dela, zeri jarri behar zaio suspentsoa? Tailerreko probari ala irakasgai osoari? Galdera izango litzateke: zer ebaluatzen da kasu zehatz honetan? Eta zer dio irakaskuntza gidak tailerraren bidez (edo tailerreko proben bidez) ebaluatu behar diren gaitasunen ezaugarriei buruz?

Aldezlearen ustez, bi arlo zedarritu behar dira hor: arlo akademikoa eta arlo zehatzailea, bi-biak bateragarriak. Arlo akademikoari dagokionez, aldezeak gomendatzen du irakasleak iruzurra aztertzea eta ikuspegi akademikotik baloratzea. Aldezlearen ustez, azterketetan edo ebaluazio probetan eginiko iruzurrak eragindako suspentsoa ez da zertan hartu diziplina zehapen administratibotzat edo zehapen nagusiaren neurri osagarritzat (Auzitegi Gorenak adierazitakoaren harira). Ikasle batek kopiatu egin badu, haren errendimenduaren ebaluazioa ezin izan daiteke positiboa, negatiboa baizik: hots, suspentsoa. Nolanahi ere, ondorio hori mugatu egin behar da iruzurra egin den proba zehatzera. Irakaskuntza gidak badio gainditu egin behar direla nahitaez tailerreko proba horren bidez ebaluatu beharreko gaitasunak, proba zehatzetik harago zabal litezke haren ondorioak. Dena dela, hori horrela ez bada, zalantzazkoa da irakasgai osoa ez-gainditutzat ematea, are gehiago tailer osoak, gidaren araberan, amaierako ebaluazioan %20ko pisua duenean.

Iruzurrak erantzun akademiko bat behar du, zeinahi ere den bide zehatzailea. Edonola ere, ezin da neurri zehatzailerik hartu dagokion prozedura izapidetu gabe, ahal akademikoa erabiltzea oinarri hartuta, irakaskuntza gida behar bezain zehatza ez denean. Gauza bat da proba zehatzaren kalifikazioa (edo nahi bada eta gehien jota, tailerrari dagokion zatiarena) eta beste bat dagokion diziplina prozedura izapidetuta ezar litezkeen balizko zehapenak, ustez iruzur egin duen pertsonak alegazioak aurkezteko duen eskubidea bermatuta. Iruzurrari diziplina prozedura aplikatu behar zaio, suspentsoaren kalifikazio akademikoa edo probari dagokion kalifikazioa gorabehera, eta hortik zigorra sor daiteke (*“Pérdida del derecho a la convocatoria ordinaria en el semestre académico en el que se comete la falta y*

respecto de la asignatura en la que se hubiera cometido") (LCU 144.b), baldin eta, kasu honetan bezala, falta astuna bada.

Amaitzeko, beste behin eskerrak ematea besterik ez zait geratzen, bai Aldezlearen zerbitzuan konfiantza izan duten pertsona guztiei, bai gure lana eta independentzia errespetatu dituzten unibertsitateko zerbitzu eta agintari akademikoei.

I. ERANSKINA: 2023ko aztergaien zerrenda

Gakoak

Kolektiboa	Aztergai mota
IK: Ikasleak	KE: Rexa
IRI: Irakasle-ikertzaileak	KO: Kontsulta
TEKAZEL: Administrazio eta zerbitzuetako langileak	B: Bitartekaritza
Beste batzuk: UPV/EHUtik kanpoko pertsonak	

Zk.	Kolektiboa	Aztergai mota	Gaia
1544	TEKAZEL	KO	Arazoak lanaldi intentsiboa baimentzeko bere ikastegiko langileei.
1545	TEKAZEL	KO	Zalantzak erretirora igarotzeko neurri gisa onartu zaion lanaldi murrizketari buruz.
1546	IK	KO	Euskarazko C1 maila akreditatzetik salbuesteko aukera, master bateko irakasgai batzuk gaindituta.
1547	IRI	KO	Sail batean dauden irizpideez gain beste batzuk ezartzeko aukera, bosturtekoen eskaerei buruz informatzeko.
1548	IK	KO	Kalifikazio irmo eta baimendu bat erreklamatzeko aukera.
1549	Beste batzuk	KO	LEP deialdian tasak ordaintzetik salbuesten duten egoerak.
1550	IK	KE	Azterketa baten galderen anbiguotasuna eta irakaslearen erantzun desegokia azterketa berrikustean.
1551	IRI	KO	Ahozko proben grabazioa exijitzeko eskubidea hautapen prozesuetan.
1552	Beste batzuk	KO	Galdutako graduako tituluaren kopia lortzeko zailtasunak.
1553	Beste batzuk	KO	Akats bat zuzentzea; data falta da eman zaion ikastaro baten diplomari.
1554	TEKAZEL	KE	Lanaldia murrizteko eskubidea, erretirora igarotzeko neurri gisa.
1555	IK	KE	Irregularitasunak graduako irakasgai baten ebaluazioan.
1556	IRI	KO	Sailaren aurkako txostena bosturtekoen bere eskaerari.

1557	Beste batzuk	KO	Unibertsitate instalazioak erabiltzea helburu zehatz batzuetarako.
1558	IRI	KE	Irakaskuntza aitortza eskasa, talde oso handietan irakasten denean.
1559	IK	KE	MALaren matrikula eta defentsa datei buruzko informazio akatsduna.
1560	IRI	KO	Ebaluatutako azterketa baten kopia eskatzeko eskubidea.
1561	IRI	KE	UPV/EHUren ikerketa proiektuen deialdietan parte hartzeko ezintasuna, kanpoko finantzaketa duen ikertzailea izateagatik.
1562	IRI	KE	Irakaslanaren esleipena aldatzea aurrez jakinarazi gabe.
1563	Beste batzuk	KO	Arazoak irakasle-ikertzaileen ordezkoen poltsetan onartutakoen eta kanpoan gelditutakoen zerrendak argitaratzean.
1564	IK	KE	Azterketa ez ebaluatzea eta zuzentzea letra ulertezina izateagatik.
1565	IRI	KE	Desadostasuna giza baliabideak arrazionalizatzeko Gobernu Kontseiluak onartutako planarekin (erretirora igarotzeko neurriak).
1566	IRI	KO	Logistika arazoak ikerketa ekipo bat konpontzera bidaltzean.
1567	Beste batzuk	KO	UPV/EHUUn eginiko gradu baten dokumentazioa atzerrian homologatzeko eskaera.
1568	IK	KO	Ebaluatutako azterketa baten kopia eskatzeko eskubidea.
1569	TEKAZEL	KO	Irakasgai baten kalifikazioak argitaratzeko epeak ez betetzea.
1570	IK	KE	Desadostasuna gradu baten praktiketako plazak adjudikatzeko prozesuarekin.
1571	TEKAZEL	B	Gatazka saileko zuzendaritzarekin.
1572	IRI	KO	Nahikoa eskaera baduen irakasgai bat irakaskuntza eskaintzetik kentzea aurrez jakinarazi gabe.
1573	TEKAZEL	KO	Familia arazoen eragindako zailtasunak.
1574	IRI	KO	Desadostasunak moduluko lankideekin koordinatzailea izendatzean.
1575	IRI	KE	Arazoak arreta zerbitzuan, gorabeherak daudenean informatika ekipoetan.
1576	IRI	KO	Boto sekreturako eskubidea Saileko Kontseiluan.
1577	IK	KO	Klasera sartzeko eskubidea, hura hasi denean (arrazoi justifikatuak), eta etengabeko ebaluazioarekin jarraitzekoa.
1578	IRI	KO	Sektore publikoan kontratu bat baino gehiago bateragarri egiteko eskubidea.

1579	IK	KO	Zalantzak modu kolektiboan eginiko kalifikazio erreklamazio bati buruz.
1580	IK	KO	Zalantzak ikasleak ebaluatzeko arautegiari buruz, atxikitako ikastegi batean.
1581	IK	KE	Irakasle falta graduaren irakasgai batean eta irakasle-ikertzaile baten irakaslanari buruzko kexa.
1582	TEKAZEL	KE	UPV/EHUko langileei kontsumorako maileguak emateko baldintzak.
1583	Beste batzuk	KO	Enpresa lortzeko zailtasunak, graduako praktikak egiteko.
1584	Beste batzuk	KO	UPV/EHUren gradu bat online egiteko aukera.
1585	IK	KE	Euskarazko eta gaztelaniazko taldeak bategitea, graduaren irakasgai batean irakaslerik ez egoteagatik.
1586	TEKAZEL	KO	Bakarkako kirolarientzako laguntzak edo bekak, Unibertsitate Txapelketara joateko.
1587	IK	KO	MALa bigarren aldiz berrikusteko aukera.
1588	Beste batzuk	KO	Irakasgai baten kalifikazioaren aurkako erreklamazioa, aurrez ezarritako ebaluazio sistema ez betetzeagatik.
1589	TEKAZEL	KO	Eskala batean eginiko aldia aitortzeko eskubidea, baliogabe utzi denean bere izendapena esleipenean izandako akats bategatik.
1590	TEKAZEL	KE	Puntuazio handiago EAEn ofizialak ez diren hizkuntzen titulazioan euskarazko maila bereko titulazioan baino, IV Taldean sartzeko TEKAZELEko langile kontratudun finko gisa.
1591	Beste batzuk	KO	UPV/EHUren graduondoko bat online egiteko aukera.
1592	IK	KO	Azterketa baten nota jaisteko aukera, irakasgaiaren irakasleak hura berrikustean.
1593	IRI	KO	Amatasun prestazioa jasotzeko eskubidea, titularra itzultzean ordezkapen kontratua amaitzeagatik.
1594	TEKAZEL	KO	Zerbitzu arrazoiengatik kalte-ordaina eskatzean, kongresuetara joateko lizentzia baimena eransteke UPV/EHUko kideen betebeharra.
1595	IRI	B	Bitartekaritza eskaera ikertaldeko kideekin izandako gatazkan.
1596	TEKAZEL	KO	Lanpostuaren titularra hizkuntza eskakizunen derrigortasun erregimen orokorra betetzetik salbuestea aurreikusten den kasuak.
1597	IK	B	Ikasle batek ikaskide bat jazartzeko duen jogaera.

1598	Beste batzuk	KO	UPV/EHUko doktoregoko ezohiko sarien banaketa berrikusteko aukera, amaitutako deialdi batean.
1599	IK	KO	Irakasgai baten ebaluazioan irregulartasunak erreklamatzeko prozedura.
1600	IK	B	Ikasle batek ikaskide bat jazartzeko duen jokaera.
1601	IK	KO	Ez diote ebaluazio berezia onartzen irakasgai batean, eta uste du merezi duela.
1602	IRI	KO	Ikasle bat klasetik botatzeko aukera, portaera desegokiagatik.
1603	IK	KO	Azterketa ofizialaren eguna aldatzeko eskubidea, arrazoi justifikatuengatik.
1604	IRI	KO	Desadostasunak saileko zuzendaritzarekin, irakasgai baten irakaslan eta koordinazioagatik.
1605	IK	KO	Bizikidetza arazoak ikaskideekin.
1606	IRI	KO	Irakasgaiaren metodologiari buruzko ikasle baten kexa izapidetzeko zailtasuna.
1607	IRI	KO	Desadostasunak irakasgai batean lankide duen irakasle batekin.
1608	TEKAZEL	KO	Zer egin konforme ez badago ardurapean dituen langileei jarri zaizkien zereginekin.
1609	IK	KO	Laguntzarik ez premia bereziak dituzten pertsonen, jardunaldietara eta kongresuetara joateko.
1610	IK	KO	Ebaluazio proba ofizial baten eguna aldatzeko eskubidea, autobusen greba dela-eta.
1611	IRI	KO	Unibertsitate matrikularako laguntza eskaera ukatzea.
1612	IRI	KO	Ikasle baten ebaluaziorako alternatibak. Irakasgai bat gainditzea falta zaio titulazioan eta deialdi guztiak agortu ditu.
1613	TEKAZEL	KO	Azterketa eguna aldatzeko eskubidea, epaiketa batera lekuko gisa joan behar izateagatik.
1614	IRI	KO	Aldaketak irakasle plaza berriak onartzeko irizpideetan.
1615	IK	KO	GRALa ezin matrikulatzea, aktetan irakasgai baten kalifikazioa ez agertzeagatik matrikularako ezarritako epean.
1616	Beste batzuk	KO	Bibliotekako aretoetan mugikorra erabiltzeko debekua.
1617	Beste batzuk	KO	Bere unibertsitate titulazioarekin lan egiteko eskubidea, Espainiako nazionalitatea izan gabe.

1618	IRI	KO	Bizikidetza arazoak alojamendu berean dauden Erasmus ikasleen artean.
1619	IRI	KE	Ez diote uzten erabiltzen izena eta bi abizenak posta elektronikoko bere helbidean.
1620	Beste batzuk	KO	Ez betetzea atal praktikoa egiteko eta planifikatutakoaren arabera aurkezteko MALaren zuzendariarekin hitzartutako epeak.
1621	IRI	KO	Arlo batean irakasle aritzeko aukera beste arlo bateko plaza lortu ondoren.
1622	IK	KO	Desadostasuna irakasgai batean lortutako kalifikazioarekin.
1623	IRI	KO	UPV/EHUren posta elektronikoen migrazioa.
1624	IRI	KO	Iruzur akademikotik sortutako ondorio akademikoak eta administratiboak.
1625	Beste batzuk	KO	UPV/EHUren master batera sartzeari buruzko zalantzak.
1626	IK	KO	Irakats unitatea lekuz aldatzeko aukera.
1627	IRI	KO	Azterketa baten galdetegira sartzeko eskubidea.
1628	IRI	KO	Gatazka irakasgai bateko irakaslearen eta ikasle batzuen artean. Jarrera lotsagabea eta iraingarria.
1629	IK	KE	Irakasle-ikertzaile baten portaera bere irakasgaiaren irakaskuntzan eta ebaluazioan.
1630	Beste batzuk	KE	Aurre-inskripzio eskaera behin-behineko egoeran gelditu da.
1631	IRI	KE	Familia kontziliaziorako tutoretza telematikoak ukatzea.
1632	IRI	KE	Erantzunik ez bere plaza lanpostuen zerrendan aldatzeko eskaerari.
1633	IK	KO	Ebaluazio objektibo, inpartzial eta bidezko baterako eskubidea.
1634	IK	KO	Matrikula esleitutako datan eta orduan ezin egitea.
1635	IRI	KO	Sailak ebaluazio batzordea izendatzeko eginiko proposamenaren baliogabetasuna.
1636	Beste batzuk	KO	Prezio publikoak ez ordaintzeagatiko zorrak preskribatzea.
1637	Beste batzuk	KO	Onarpen eta matrikula prozedura. Plazak hutsik egonez gero egiten diren deiak.
1638	IK	KO	Familia eta lana kontziliatzeko eskubidea.

1639	IRI	KO	Beste campus bateko irakasle-ikertzaileei irakaskuntza esleitzeko irizpideak.
1640	Beste batzuk	KE	Nahasmena graduan aurre-inskripzioa egiteko epeari buruz jasotako informazioan, eta inskripzioa epez kanpo formalizatzea.
1641	IK	KE	MALaren kalifikazioaren aurkako erreklamazioa.
1642	IRI	KE	Ikerketa merezimenduak kobratzea ukatu diote, aldi baterako kontratua izateagatik.
1643	Beste batzuk	KE	Erantzunik ez USE kalifikazioaren aurka jarritako gorako errekurtsori, eta aukeratutako ikasketak ezin egitea.
1644	IRI	KE	Desadostasuna sailtan irakasle-ikertzaileen ordezkapena onartzeko irizpideekin.
1645	IRI	KE	Dekanotzaren erantzuna ikasle batek planteatutako kexari.
1646	Beste batzuk	KO	Irakaslanaren ziurtagiria lortzeko arazoak.
1647	IRI	KO	Zalantzak ordezkapen kontratua iraungitzeari buruz.
1648	IRI	KE	Unibertsitate zerbitzu baten buruaren jokabide desegokia.
1649	IRI	KO	Ebaluazio probak egiteko aukera irakasgaia matrikulatuta dagoen hizkuntzan ez beste batean.
1650	Beste batzuk	KO	Arazoak kredituak aitortzeko eskaera epean, espediente lekualdaketa bidez onartutako ikasle baten kasuan.
1651	IK	KE	Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen egokitzapenen bidez arreta jasotzeko eskubidea murriztea EGMHE ziklo bakoitzeko titulazio batera.
1652	IK	KE	Ikastegiko idazkaritzaren erantzun desegokia eskatu denean UPV/EHUn erabiltzeko norberak sentitzen duen izena eta ez NANn agertzen dena.
1653	IK	KO	Klase kopuru jakin batera nahitaez joatea irakasgai bat gainditzeko.
1654	IK	KO	Gradu ikasketetan denbora partzialaz matrikulatzeko eskubidea.
1655	Beste batzuk	KE	Matrikulatu kopuruaren datuak eskatzea gradu baten lehen mailan.
1656	IK	KO	Zalantzak irakasgai baten ebaluazio berezia arautzen duen arautegiari buruz.
1657	IK	KE	Hautagai hirueledunik ez ordezkapen poltsetan, irakasgaiak ingelesez emateko osorik hizkuntza horretan ematen den gradu batean.
1658	IK	KO	Arazoak espediente lekualdaketa eginiko matrikula batean.

1659	IRI	KO	Aurrekontua banatzea ikerketa proiektuetan.
1660	IRI	KO	Irakasle baten jokabide desegokia Saileko bilera batean.
1661	IRI	KO	Konfidentzialtasun betebeharra UPV/EHUren zerbitzu batek informazioa eskatzean.
1662	IK	KE	Irakasle falta gradu baten irakasgai batzuetan.
1663	IK	KO	Jendetza handiko orduetan garraio publikoan iristeko arazoak.
1664	Beste batzuk	KO	Erantzunik ez osasun arrazoiengatik espedientea lekuz aldatzeko epez kanpo eginiko eskaerari.
1665	TEKAZEL	KO	UPV/EHUtik kanpoko pertsonen arrazoi justifikatuengatik ikastegira sartzea debekatzeko aukera.
1666	IK	KO	Desadostasunak titulazioko irakasleekin eta taldeko ikaskideekin.
1667	IRI	KO	Zalantzak irakasle laguntzaile doktoreen deialdien oinarriak interpretatzean.
1668	Beste batzuk	KO	Informazio eskaera, erantzunik ez lortzean doktoregoko ezohiko saria adjudikatzearen aurka jarritako gorako errekurtsioan.
1669	IRI	KO	Datuak erabiltzea argitalpen zientifiko batean baimenik gabe.
1670	IK	KO	Egutegien bateraezintasuna mugikortasun programatik kanpo dauden graduako irakasgaiak ebaluatzean.
1671	IK	KO	Kalifikazioak bihurtzeko irizpideak mugikortasunean lortutako kredituen aitortza akademikoan.
1672	IRI	KO	Irakaskuntza materialetarako baliabideak banatzea sailetan.
1673	Beste batzuk	KO	Genero indarkeriaren protokoloa aldatzeko proposamena.
1674	Beste batzuk	KE	Desadostasuna doktoregoko ezohiko sari bati buruzko erabakiarekin.
1675	IK	KE	Desadostasunak bere doktorego tesiaren zuzendarikidearekin.
1676	TEKAZEL	KE	Erantzunik ez kontratazio berriko irakasle-ikertzaileen soldaten atzerapenari buruzko informazioa eskatzean.
1677	TEKAZEL	KO	Kafetegian kanpotik ekarritako janaria edo edaria kontsumitzeko eskubidea.
1678	IRI	KE	Erantzunik ez okupatzen duen plaza lanpostuen zerrendan aldatzeko eskaeraren aurrean sailak eginikoaren aurka jarritako gorako errekurtsioan.
1679	IK	KE	Arazoak bere doktorego tesia gordailutu eta defendatzeko.

1680	IRI	KO	Okupatzen duen plaza deialdian sartzeko betebeharra.
1681	IK	KO	Master ofizial bateko enpresa kolaboratzaileetan praktikak egiteko zailtasunak.
1682	IRI	KO	Duela urte batzuk izandako lan istripu batek sortutako arazoak.
1684	IK	KE	Irakasgai bateko irakaslearen arreta eta erantzunik eza, uko egitean etengabeko ebaluazioari klasera ezin joateagatik.
1685	IK	KO	Eztabaida bizia klasean irakasgaiaren ardura duen irakaslearekin.
1686	TEKAZEL	KE	Erantzunik ez aldi baterako irakasle-ikertzaileek ikerketa jardueraren ebaluazio deialdietan parte hartzeko eskaeretan.
1687	IK	KO	UPV/EHUren master ofizial batean borondatezko praktikak egiteko eskubidea.
1683	IK	KO	Akats baten ondorioz, GRALa aurreko ikasturtean matrikulatzea
1688	IK	KO	Zalantzak irakasgaiaren praktikan ebaluazio arautegia aplikatzeari buruz.
1689	IK	KO	Gorabeherak bere ikastegian unibertsitateko kideekin.
1690	IK	KO	Bibliotekan leku baten erreserba eskaera era telematikoan egiteko betebeharra.
1691	IRI	KO	Laguntzen deialdi batean eskaera epea aldatzeko komenigarritasuna, deialdiaren espirituaren eta helburuaren aurkakoa izateagatik.
1692	IRI	KO	Ikasle bat hertsatzea bere ikastegira joan ez dadin.